

Herririk Herri |6|

Izurtzako Udala Tabiran biribilgunea egiteko proiektuaren kontra dago



Berbaz |9|

P. Arebalo: "Herria elkarte auzoko arazoak konpontzeko sortu zen"

Lau Hanka |27|

Zaldiak behar dituen oinarritzko elikagaiak belarra eta galtzua dira

Arruetarrek epaitegieta eroan dabe antenen auzia

> Udalak legea bete daian epaitegieta jo behar izana salatu dabe auzokideek.

> Antenak egitura bakarrean jarri gura ditueela dinoe udal arduradunek.

2



Arrueta auzoko bizilagunak arduratuta dagoz "antenek osasunean eragin leikiezen kalteengaitik". Judit Fernandez

Mankomunitateak kutsadura maila aztertuko dau

DURANGALDEA • Urte barrirako aurreikusitako proiektuen artean, Mankomunitateak eskualdeko kutsadura maila neurtuko dau. Horrez gainera, 2009an, gizarte zerbitzuak eta formazino arloa indartu gura ditue.

3

Elortza txapelduna, Xabier Amurizaren puntuei erantzuten

KULTURA • Bizkaiko Bertsolari Txapelketa bosgarrenez irabazi dauen Igor Elortza durangarrari elkarrizketa zabal eta sakona egin deutso asteon Xabier Amuriza idazle eta bertsolariak.

12-13

Anbotopeko eta Zaldia martxa ezin hobean dabilz

KIROLA • Saskibaloian sasoikoen doguzen eskualdeko taldeak dira Zaldia eta Anbotopeko. Partidu bakarra galdu dabe, eta ia segurtatuta daukie igoera fasea.

23

POL TSA BETE EUSKERAZ

Merkataritzan euskera erabilerara bultzatzeko, Durangaldeko Mankomunitateak 2009ko

1. ANBOTOarekin batera 9.000 poltsa banatuko ditu ondorengo herrietan: Elorrio, Atxondo, Abadiño, Durango, Zaldibar, Mañaria, Iurreta eta Izurtza



• Iurreta

Jaiobarri eta umeei ondoetorria emoteko kanpaina

4

• Atxondo

Anbotopeko elkarteari lokala itzi daiala eskatu deutso Udalak

7

• Elorrio

Erdi Aroko irudiak jasotzen dituen egutegia salgai

2

EXCAVACIONES JON

MOTA GUZTITUAKO INHUSKETAK
HONDAKINDUGIA

Jon Garitagoitia Galastegui

Peagokume, 101 • 48950 • 48950 MALLAMA
TEL: 946 17 36 34 • FAX: 946 17 36 35

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyelexpe.biz

HERRIRIK HERRI >

MAÑARIA

Komunikazinarako antena guztiak egitura berean gura ditu Udalak



Egitura bi eta hiru konpainiatako antenak dagoz. J.Fernandez

Arruetan dagoen antenak egitura bakar batean kokatzea aspaldi erabaki ebela dino Arteagak

Alboan dagoen terrenoeki-ko herriko arau subsidia-rioek zehazten dabengitxi-eko 3 metroko distantzia errespetatzen ez dabelako, Arrueta auzoan dagoen telefono mugiko-rran antenak telebistarako baliatzen dabengituran kokatzeko agindu eban azaroko alkatetza dekretu batek. "Hiru antena torre barik, bakarria izateko", hartu ebela erabakia dino Javier Arteaga alkateak, eta, "ituraz, arau subsidiarioetan jasotakoa zentimetro batzukaitik betetzen ez dabelako".

Arruetako auzotarrek nabarmetzen dabenez, baina, telefonia mugikorrek antenak bertan kokatzeko baimena be Udalak emon eban, eta auzotarren eskariz neurketak egin eta planoak begiratu ondoren onartu ei dau Udalak Vodafone konpainiak ipinitako antena ezin leitekela leku horretan egon. Izan be, Arau subsidiarioetan jasota dagoenez, Arrueta auzoan badago komunikazino-ko zerbitzuak kokatzera bideratutako esparru bat, baina aitatutako antena esparru horretatik kanpo dago.

"Hiru antena torre barik, bakarria izateko" agindu dabela lekualdaketa arrazoitu dau Arteaga alkateak

Auzotarrek berraztertze erre-kurtsoa ipini eben Udalean. Eran-tzunik ez ebenez jaso, epaitegie-tara jo behar izan dabela salatu dabe "Udalak bere arauak bete-a-razi daiezan".

1997an hasi ei ziren auzoan telefonia-antenak ipintzen, eta orain hiru urtetik, "borroka neka-garria" daroela dinoe auzotarrek; Udalaren babesik ez dabela izan. Euren berbetan, antena egituraz aldatu arren, antenen eragina bardina izango litzakelako.

Egitura aldatu arren, antenen eragin kaltegarria berbera izango litzake auzotarren aburuz

Telefonia mugikorrek anten-ek osasunean eragiten dabengaltea aintzat hartzen dauengledirik egon ez arren, Mañariara etorritako Raul de la Roza aditua-ren arabera, gomendatutakoa baino hamar bider emisino handi-a-goa dago Arruetan. Auzotarrek dinoenez, lo faltak eragindako estresa, antsietatea eta minbizia izateko arriskuak gehitzen dira antenak etxe ondoan izanda.

Udalak antenentzako kokale-ku aproposagoa bilatzea da auzo-tarren helburua. Izan be, euren ustez egon badagoelako leku egokiagorik. ■ I.E.

ABADIÑO

Udalaren webgunea barritu dabe

Hainbat hilabetetan, orrialdea barrizten jardun dabengitar-tean, sarean ez dau informazi-norik argitaratu Abadiño-ko Uda-lak. Urte amaieran, baina, eta martxan jarritako orrialdean bertan adierazten dabenez zer-bitzua ehuneko ehunean ez dabilen arren, kontsultagai dabe interesdunek berriro Udaleko informazioa biltzen dauengwww.abadiano.org helbidea internetean.

Interneteko gune barriztua martxan dauka Udalak, eta hobekuntzak egitekoak dira datozen hilabeteetan

Orain artekoa baino zerbitzu osotuagoa eskaintzeko helburuz eta erabiltzaileei orain artekoak baino aukera gehiago eskaini guran barriztu dabe Udalaren interneteko gunea. Abadiño-lako hedadura zabaleko herri batean -auzoak bata besteagandik aldentuta daukazena- Udalaren sareko zerbitzua erabilgarri izatea garrantzitsutzat jotzen da.

Horrenbestez, datozen hila-beteetan egingo dituen hobekuntzen aurretik, hainbat zerbitzu dago prest dagoeneko Udalaren interneteko gunean: Udaleko informazioa, udalbatzarretako aktak, udal ordenantza eta araudiak, iradokizunetarako atala, eguraldia, online bulegoa, hiritarren arreta zerbitzu birtuala, etab. ■ I.E.

ELORRIO

Euskara Plana onartu dabe

Euskararen barne erabilera plana aho batez onartu eban udalbatzak azken osoko bilkuran. Dokumentu horrek Udalaren barne funtzio-namenduan euskararen erabilera-rari jagokonez zer hobetu leiteken jasotzen dau. Dokumentazioa, langileen prestakuntza eta beste hainbat arlo aztertu ditue 2008-2012 urteen artean, hutsuneak topatu ditueenglekuetan baliabi-deak jartzeko.

Udal ordezkarien berbetan, Euskara Plana oinarriak markatzen ditu, eta orain topatu ditueengahulgunetan hobetzeko "kon-promisioa hartzea beharrezkoa da". Gaineratu dabenez, "Udaleko arlo guztiak dira ez bardinak, eta bakotxean modu batean lan egin beharko da". Dokumentua Jaurlaritzara bialdu dabe. ■ J.G.

Erdi Aroan oinarritutako egutegia kaleratu dabe

Hiribilduaren ezaugarriak iruditan jaso ditue

Erdi Aroko hiribildua ahalik eta zehatzen irudikatzea izan da Rikar Ajuria historialariaren, Gotzon Garaizabal diseinatzailearen eta Aiher Zubikarai margolariaren helburua Elorrioko egutegia sortzerakoan. Orain urte eta erdi historia liburu eta arlo horien elorriarrek, irudiak lantzen hasteko. Garai haretako Foru Aldundiko dokumentuak esku artean izan ditue; baita hainbat adituk kaleratutako lanak be.

Hiribilduaren marrazki horreek ez ditue kaleak eta harresia bakarrik islatzen: orduko elorriarren jantziak, ogibideak eta ohiturak be jasotzen ditue. Hain-

Elorrio historikoki aztertze-ko Axkoena elkarteak sortu dabe; hiribilduko lehenengo biztanleek erabiltzen ebena

bat aditugaz janzkeren inguruko informazioa batu dabe. Bizkai-ko beste hiribilduekin alderatuz, Elorriokoak daukan ezaugarrietako bat eliza kanpoan izatea da. "San Agustinera irten behar izaten eben elizara joateko", argitu dau Ajuriak. Irudi guztietako neurriak datu historikoetan oinarrituta dagoz. ■ J.G.



Egutegia udaletxean aurkeztu dabe. Kepa Aginako



MALLABIA

Estolderia eta zabor-biltzea berriro gora

Urte barriko udal tasa gehienak %4 igon dira. Oinarri leze erabili zen uztaileko KP1a %5,2koa zen. Ondo-ko hiru tasek esandako %4ko igoe-ra edukiko dabe 2009an: ibilgai-luen gaineko zergak, zerbitzu publikoak emon eta jarduerak burutzeagaitiko tasak, eta, azke-nik, udalerriko bide publikoetako lurzoruaren, zorupearen edo lur-gainaren bakarreko erabilera gaitik edo aprobetxamendu berezia-gaitik ordaindu beharreko tasak.

Hiru tasek %4ko igoera edukiko dabe: ibilgailuenak, zerbitzu publikoenak eta bide publikoen gainekoak

Ura eta estolderia %6 Ura eta estolderiaren zergak, biga-rrenik, gainerako tasak baino zeo-zer gehiago igongo dira; %6 hain zuzen be. Uraren gaineko zerga “ahal den gutxien” igon dela azal-du dau Aitor Loiola alkateak. Estol-deria aurtan berriro igongo da, baina ez igaz beste.

Ura eta estolderia berriro igon dira eta zabor-biltzea %27 garestituko da aurtan

Zabor-biltzea %27 Zaborraren gaineko tasak izango dau, azkenik, igoerarik handiena. Deba Barreneko Mankomunita-teak Mallabiko Udalari zerbitzua %27,18 igongo deutso berriro. Igoe-ra hori tasak berak pairatuko dau, eta 2009an %27 igongo da. Igaz be Mankomunitateak zaborra biltze-ko zerbitzua %36,7 igon eutsan Udalari. Orduan be tasa hori %35 garestitu zen. ■ M.G.

DURANGALDEA

Mankomunitateko inbertsino handienak kirolguneetarako

2009rako 7,6 milioi euroko aurrekontua onartu dabe. Eskualdeko kutsa-dura azterketa egiteaz gainera, gizarte zerbitzuak indartu gura ditue



Landakoko atletismo pistan hainbat hobekuntza egingo ditue. Judit Fernandez

Gastua ahalik eta gehien murriztea: horixe izan da Mankomunitateak 2009ko aurrekontuak diseina-tzerakoan jarraitu dauen erizpi-de nagusia. Marian Larrauri pre-sidentearen berbetan, “krisia udaletxeetara be heldu da, eta aurreko urteetako soberakina-rekin inbertsino eta proiektu gehienak finantzatuko doguz”. Abenduko osoko bilkuran onar-tutako plan ekonomikoak EAJ eta Alderdi Popularraren babe-sajaso eban. Independienteak eta

Mankomunitateko inbertsinoak

Atletismo pista:	22.000 €
Belodromoa:	80.000 €
Kutsadura azterketa:	112.000 €
Hiri agente ikastaroa:	25.000 €

PSE-EE abstenitu egin ziren, eta gainerakoek kontrako botoa emon eben. Datorren urteari begira, inber-tsino nagusiak kirol azpiegiture-tan aurreikusi ditue. Atletismo pistan konponketak egingo ditue, Abadiñoko trinketea berogailu sistema barria ezarriko dabe eta Berrizko belodromoaren zati bat itxi egingo dabe. Gastu hori guz-tia aurreko urteetako diruzain-tzako soberakinekin egingo dabe-la jakinarazi dabe. “Ekonomikoki urte onak izan doguzenean gor-

detakoa gastatzeko ordua iritsi delakoan gagoz”. Krisi egoerari aurre egin guran, gizarte zerbitzuetan etalan eta formazioan “inoiz baino aha-legin handiagoa” egingo dabela jakitera emon dau Larraurik: “Arlo horretan behar dau jenteak lagun-tza gehien”. Beste ekimen batzuen artean, sozialistek proposatutako proiektu bat aurrera atera da. Hiri agen-tearen figura sortzeko ikastaroa emongo dau Behargintzak. Pilar Rios zinegotziak azaldu dauenez, langabetuek edo lanez aldatu gura dabenek ikastaroan parte hartze-ko aukera eskaintzea da helburua, behar hau betetzeko udaletxeek kontratatu daiezen”. Langile horreek jokaera desegokien aurrean herritarrei aholkuak emongo deutseezen arren, ez dabe isunak jartzeko eskuduntzarik izango. Azaldu dabenez, beste herri batzuetan holango ekimenek “harrera bikaina izan dabe eta eskualdean be bardin gertatzea da helburua”.

Hiri agenteek ezingo dabe ezelako zigorrik ezarri; herritarrei aholkuak emon ahal izango deutseez

Ingurumena Eskualdeko kutsadura maila eza-gutzeko Mankomunitateak Duran-galde osoko ikerketa egingo dau. Oraindino ez dabe erabaki lan horren ardura zer enpresak izan-go dauen. “Azterlanek Durangoko azterketa egin dau, eta datu horreek egingo dogun ikerketarako erabil-garriak diren jakin gura dogu”, dino Larraurik.

Zabor-biltzea Durangaldeko Mankomunitateak eskaintzen dauen zabor-bilketa zerbitzuari jagokonez, inbertsi-noak mantentzeko erabakia har-tu dabe: “Atal horretako soberaki-na beste kamioi bat erosteko era-biliko dogu”. ■ J.G.

ZALDIBAR

Berdintasun Planaren ebaluazinoa egingo dabe

Zazpi urtean egindako lana da neurtuko dabena

Zaldibarko Udalak 2001ean mar-txan jarritako emakume eta gizo-nen berdintasunerako lehenengo planaren ebaluazinoa egingo dau datozen hilabeteetan Berdindu Gestion Social enpresak. Berdin-

me eta gizonen arteko bardinta-suna sustatzeko neurriak hartzen zituen lehenengo Berdintasun Pla-nak: besteak beste, Alkatetzan, Euskara Sailean, Hirigintzan, Gaz-terian eta beste hainbat arlotan eragiten eben neurriek. Diagnos-tiko fase honen helburu nagusia plangintzan izandako hutsuneak aurkitu eta egin beharreko hobe-kuntzak zehaztea dabe, udal orde-zkariak azaldu dabenez. Izan be, jakinarazo dabenez, emakume eta gizonen bardinta-sunerako bigarren plana abiatze-ar dagoen honetan, baliagarri izan-go dira 14.000 euroko aurrekon-tua izango dauen ebaluazino honetako ondorioak; diagnosiaren gastua finantzatzeko 10.500 euro-

2001ean abiatu eben I. Berdintasun Plana noraino gauzatu den ebaluatuko dabe

tasunerako Plana martxan izan den denporan egindako ekintzen balorazinoa eta egungo egoeraren diagnostikoa egitea da Udalak aita-tutako enpresari enkargatu deu-tsana. Oran zazpi urte, herriko eta Udaleko hainbat arlotan emaku-

ko diru-laguntza emon dau Ema-kundek. Zehaztasun gehiago emo-nez Udalak jakitera emon dabe-nez, orain zazpi urte Berdintasun Planaren aldeko jarrera aktiboa erakutsi eben herritar, politikari, teknikari zein gizarte eragileen inplikazino maila eta egindako lehenengo planaren inguruan izan leikiezen ekarpenak jasotzea izan-go da datozen hilabeteetako egi-tekoa. Aurreikuspenen arabera, lau hilabeteren buruan, martxo-rako jakinarazoko ditue diagno-siaren emoitzak. ■ I.E.

Martxorako emongo dau Berdindu Gestion Social enpresak emoitzen barri

II. Berdintasun Plana diseinatzeko baliagarri izango dira diagnostikoa jasotako datuak eta balorazinoak

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Aukera ezazu hemen zure erregalua

Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

katerin ardoak

iñaki uribe

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan

CULTURA.COM

UNDARRI BIKE

Bizikleta salmenta eta konponketa.

Bidebarrieta, 5 - bajo

48115 TURRETA

94 681 78 08

undarribike@undarribike.com

www.undarribike.com

IURRETA

Jaiobarriei ondoetorria emoteko kanpaina abian



Ibarretxe Kultur Etxean egin dabe kanpaina barriaren aurkezpena. A.B.

Ekimenak jaiobarriei herrira ondoetorria emotea dau helburu, irakurzaletasuna sustatzea ez eze

Jaiobarriei ez eze, bost urte arteko umetxoei zuzendutako ondoetorri kanpaina jarri dau martxan Udalak, *Onegin!* lelopean. Liburutegia erabiltzeko joera sustatzea be lortu gura dauen kanpaina hori adoptatutako adin txikikoei zein etorkinen seme-ala-bei zabalduta dago. Adur-zapitxo emongo deutsee erroldatutako jaiobarri eta umetxoei; nagusi-txoagoei, barriz, askaria eroateko zorrotxo. Horrez gainera, guraso baktzak zorion-txartela jasoko dau, Bibliotekan “neurrita” eta

Iurretako elementuak erabiliz sortutako *Zorionak!* liburuagaitik trukatu daien.

Askari-zorroa, adur-zapia eta liburuagaitik trukatzeko zorion-txartela emongo ditue

Herriko alkate Iñaki Totorikaguenak azaldu dauenez, helburuak bi dira: “Batetik, jaiobarriei herrira ondoetorria emotea eta, bestetik, gurasoen artean Bibliotekara

joateko zaletasuna piztea, holan umeak be erakarri”. Durangaldeko Mankomunitatearen eskutik izan zen, orain dela urte batzuk, antzeko ekimen bat, eta ha berreskuratu gura izan dabe azaldutakoaren arabera. Egitasmoak 12.000 euroko aurrekontua izan dau, eta, denera, produktu baktzeko 200 ale inguru kaleratu ditue. Jakin eragin dabenez, 2008an, 40-50 jaiobarri izan ziren Iurretan, eta aurten be kopuru bardintsuan jaiotzea itxaroten dabe.

Di-da komunikazino enpresak jardun dau ekimenean. Liburuaren berbak Yolanda Arrietak jarri ditu (euskaraz eta gaztelera) eta Aitziber Alonsok irudiak. ■ A.B.

BERRIZ

Sanantoniotan idi-probak behar diren eztabaidagai

Igaz gaia aurten aztertzekotan geratu ziren

Igaz urtarrileko San Antonio jaietan izan ohi diren idi-proben inguruan eztabaida sortu zen. Ezker abertzaleko zinegotziek aipatu eben idi-proben ordura arteko eskema egokia ote zen aztertu egin behar zela; hau da, idi-probak egon behar ziren edo kendu behar ziren, edo, beste eredu bat hartu behar etelitzaken: egun bakarreko edo biko erakustaldiak eginez, esaterako.

Karmen Amezuaren ustez, idi-proben eredu a Jai Batzordean jorratu beharreko kontua da

Udalbatzarrean Gobernu Taldeari galdetu eutsan gaia zergaitik ez den landu

Horren gainean eztabaidatzeko berandu zela-eta, kontua aurten itzi eben. Aurten, baina, jaietako ekitaldiak jasotzeko epea zabalduta dauen bandoa kaleratu eben gaia jorratu barik.

Ildo horretatik, azken udalbatzarrean Karmen Amezua zinegotziak alkateari galdetu eutsan ea zergaitik ez zen hori Jai Batzordean eztabaidatu. Jakin bazekiela igaz kolokan geratu zen gaia zela, eta gai hori tratatu beharrekoa zela batzorde horretan.

Jabier Azpitartek azaldu eban, urtero egiten den legez, bandoa atera ebela herriko talde eta elkarte guztiei jaietako ekarpenak egiteko epea zabalik zegoela adieraziz. Horixe dela guztia: urteroko prozedura berdina jarraitu dabela.

Azkenean, idi-probak urtarrilaren 17ko asteburuan egin gote. Nekazal Azoka, barriz, urtarrilaren 25ean da. ■ J.D.

Etixerik ez daukientzat laguntzak egokitu ditue

Urteko azken udalbatzarrean oinezkoiei zuzendutako laguntzak erregulatzen dituen ordenantza onartu dabe. Zinegotzi guztiek aldeko botoa emon eben. Orain arte, norbait udaletxera joan eta bertakoa ez dela eta etxerik ez daukala esanez gero, 20 euro emoten jakozen. 20 euro horreek, teoriar, jatekoa eta garraio publikoa ordaintzeko ziren. Baina praktikan hori gertatzen ez zenez, laguntza hori arautzen dauen ordenantza onartu dabe.

Orain, gorago aitaturako perfilaren barruan sartzen dire-

nei 5 euroko kreditansa emongo deusie, garraio publikoa hartzeko eta txartel bat be bai; txartel hori herriko tabernetan ogitartekoa eta ura hartzeko erabili ahal izango da.

Horrez gainera, hemendik aurrera eskatzaileak identifikatuko ditue. Horrela, laguntzak behin edo beharrezko diren aldietan bakarrik emongo ditue.

Laguntza eskatzen dabenei 5 euroko kreditansa eta otartekoa emongo deutseez

Palestinari elkartasuna erakusteko manifestazinoa egin dabe asteen



Israel hiltzailea! Gora Palestina, Gora Herriak lelopean Berriz osoa zeharkatuz manifestazinoa egin eben astelehenean. Tahar Bousfiha da han izan zenetako bat; marokoarra da eta 9 urte daroaz Berrizen. Bere ustez, “Israelen eraso justifikazina da”. Ondoko herrialde arabiarrek, “Egiptok, adibidez”, sendagaiak helarazten “gehiago lagundu” beharko leukiela be badino.

2008/2009 MODULUEN KATALOGO INTEGRATUAREN ETENGABEKO PRESTAKUNTZA IKASTAROAK Matrikula: IURRETA INSTITUTUAN Olaburu Auzunea, 19 48215 Iurreta (Bizkaia) Informazioa: Tel.: 94 466 88 00 Fax: 94 620 28 28 Web: www.iurreta-institutua.net MATRIKULA DOHAINIK	ARLOA	IKASTAROAK	DATAK	ORDUAK
	FABRIKAZIO MEKANIKOA	CNC tornuaren programazioa	2009/03/11 2009/04/02	40
	FABRIKAZIO MEKANIKOA	Automatismo pneumatikoak eta elektropneumatikoak Helburua: Ikastaroaren amaieran, ikaslea makineta zirkuitu pneumatiko eta elektropneumatikoen muntala egiteko gauza izango da, eta konponketak burutzeko ere.	2009/01/12 2009/02/02	40
	ELEKTRONIKA	Potentziaren regulazio elektronikoa Helburua: Ikastaroaren amaieran, ikaslea oinarritzko zirkuitu elektriko edo automatismo bat muntatzeko edo konpontzeko gauza izango da.	2009/01/26 2009/03/04	70
	ELEKTRONIKA	Ordenagailuaren hardware-a Helburua: Ikastaroaren amaieran, ikaslea ordenagailu bat anpliatzeko eta gaurkizteko gauza izango da, baita aberia arruntak konpontzeko ere.	2009/01/12 2009/01/22	30
	ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK	Informatika aplikazioak	2009/03/02 2009/04/30	80

IFK: S-4833001C • www.iurreta-institutua.net • 014950aa@hezakuntza.net

durangaldeko
b^herriak
ezagutzeko

anboto
komunikabideak



durangaldeko astekaria

Egin zaitez harpidedun



**harpidedun egiteko, deitu
94 623 25 23 telefonora edo
harpidetza@anboto.org-ra
zure izen-abizen eta helbidea bidali**

DURANGO

Ongintza zozketak hainbat sari banatu ditu 50. urtez

Inoiz baino gehiago behar dau JAEDek Gabonetako zozketan batutako dirua

Aurtengoan Loteria Durangaldeagaz lar gogoratu ez den arren, JAEDeko zozketak ez deusku hutsik egin. Errege Egunez Tronperri dantza taldeko gazteek atera zitueen banatutako oparien zenbakiak. Eguraldia lagun izan ez arren, hainbat pertsona batu zen Andra Mariko elizpean auto preziatua tokatuko ete jaken jakiteko. Sari nagusia 52.448 zenbakiari egokitu jako. JAEDeko arduradunek jakitera emon dabenez, “oraindino ez dainor agertu kotxearen bila”. Azaldu deuskuenez, txartel hori Errege Egunean bertan saldu eben.

JAEDen zozketa

1. 52.448	6. 44.783
2. 04.987	7. 46.648
3. 51.860	8. 42.091
4. 44.933	9. 50.355
5. 25.495	10. 42.162

Zozketako 50 zenbaki sari-tuak ezagutu gura dituenak edo irabazitakoak jaso gura dituenak Andra Mariko standera joatea baino ez dau egin behar; aste osoan zehargoizeko 11:00etatik 13:30era eta arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara.

Aurtengo zozketan ezustekoa be izan dabe. Lapurretan sartu jakez standera, eta bigarren saria eta telebista bat eroan deuseez.

Urtero legez, 60.000 txartel saltzeko helburua ezarri dabe eta 58.300 saldu ditue. “Krisia dala-eta gitxiago salduko zirela pentsatzen

genduen, baina azkenean urteroko zifrara heldu gara”, dino Iñaki Gorritxategik, standean opariak kaxetan sartzen dituen bitartean. Batutako dirua Durangon eta Iurretan beharizana daukienei elikagaiak banatzeko izango da. “Banatutako elikagai kopurua bikoiztu egin behar izan dogu”. ■ J.G.

Zozketa honek 50 urte egin ditu. Durangoko Ospitaleak eratzen eban lehenago, eta orain 12 urtetik JAEDek



Ohiturari jarraituz, martitzenean zozketa egin eben. J.F.

Patina jantzi eta izotz-pista bisitatzeke azken aukera

Patina je ikastaroak “jentez gainezka” egon direla jakitera emon dabe izotz-pistako arduradunek.



Abenduko domeka bitan diskoteka antolatu dabe. J. Fernandez

Durangoko izotz-pista gazte eta helduen topaleku izan da Gabonetan. Azken asteburua aurretik dogun arren, orain arte 4.514 patinatzailearen bisita jaso dau. Ikastetxeetatik, barriz, azken asteotan 1.000 ikasle ingururendako erreserba egin dabe.

Aurten izandako arrakastagaz, izotz-pistako arduradunek datorren urtean ikastaroetako plazak bikoiztuko ditue

Udal ordezkariak zerbitzu horrek herritarrengan urtero izaten dauen “harrena bikaina” nabarmendu dabe. Jakin eragin dabenez, izotz-pistak Bizkaia osoko familiak erakartzen ditu. “Umeak patinatzen datozen bitartean, guraso askok Gabonetako erosketak egiteko aprobetxatzen dabenez, herriarendako oso posibilitoa da”, azaldu dau Ander Gorrotxategi zinegotziak.

Bigarren urtez gazteendako diskoteka antolatu dabe. Gazteek aisialdirako beste aukera batzuk izatea garrantzitsua dela azaldu dau Gorrotxategik. ■ J.G.

Gasteiz Bidean errotonda barria

Bizkaiko Aldundiari lurrak itzi deusaz Udalak Gasteiz Bidean errotonda barria egin daian. Horrek trafikoa “nasaitu” eta “segurtasuna hobetuko” daue la uste dau Gobernu Taldeak. Ez da eritzi berekoa Aralar; hor “azpiegitura erraldoi” baten hasiera doala gogoratu dau, eta “atzean herritarrenak ez diren bestelako interesak” dagozela deritzo. Era berean, Arau Subsidiarioetan jaso lez Fundifex aurreko biribilgunea zergaitik ez zen erdiratu galdetu dau Aralarrek, “ibilgailuak nasaigo sartuko dira biribilgune barrira”.

Eritzi bera berretsi izan dau Talde Mistoak eta Udalaren eta Aldundiaren Izurtzagazko jarra-gaitzetsi: “Herriarendako interesgarria eta onuragarria zen egitasmoari trabak baino ez jakoz jarri”. Hori ukatu eta errotonda barria bai Durangoren-tzat bai Izurtzarentzat “onuragarria” izango dela dino EAJk. PP eta PSE-EEK be alde egin dabe.

“Lehentasunen” arabera

Udal arkitektoak arrazoitu dau lehentasunen arabera jokatu dabela. Aldundiak hil honetan hasi gura dauen errotonda Arau Subsidiarioetan jasota dago, eta A-8aren eta N-634aren lotune-ko lanekin lotuta dago. Beharrezko lurrak lortzeko ituna adostu eben. Hiru ziren lurjabeak; tar-tean, Udalak. ■ A.B.

OTXANDIO

Janaria batzen dabilz, saharar herriarendako

Tindufen dagoen saharar erre-fuxiatuen aldeko Euskal Karabanak bosgarren aldia bete dau aurten. Otxandioko Udalak hasieratik parte hartzen daueki-menean. Aurten be, datorren eguenera arte janaria edo higie-ne produktua batzeko epean dagoz. Bilketa udaletxean bertan egiten dabilz.

Janarien artean, ohiko zerrendako jakiez gainera (azukrea, arroza, lekaleak eta hegaluzea) beste barri bigehitu ditue: pasta eta sardinak oliotan.

Euskal Karabanak aurten bosgarren aldia dau, eta Otxandioko Udalak hasi zenetik parte hartzen dau

Udaletxeko arduradunen esanetan, aurten be jenteak ederto erantzun dau, eta, oraindino epea amaitzeko ia astebe-te falta den arren, dagoeneko hainbat kaxa betetzeko beste produktu batu ditue.

Frente Polisarioak eta Euskal Fondoak urtero udaletxeei laguntza eskatzen deuse gutun baten bitartez. Otxandiok beti parte hartu dau ekimenean. Produktuak jasotzeko epea amaitzen denean, kaxetan sartu eta Frente Polisarioak Gasteizen daukan egoitzara eroan dabe. ■ J.D.

IZURTZA

Ez dagoz ados Tabirako biribilgune proiektuagaz

Durangoko Udalak onartu dauen biribilgune proiektuari atzerapausoa deritzoe Izurtzan

Gabonen aurretiko azkenengo udalbatzarrean onartu eban Durangoko Udalak Bizkaiko Aldundiari Gasteizerako bidean biribilgunea eraiki daian lurrak iztea. Durangoko Udalak, “trafikoa nasaitzeko” helburuz eraiki gura dauen biribilgunea, baina, “autoak bakarrik aintzartatuta” eraikiko dabela salatu dau Izurtzako alkateak.

Durango eta Mañaria arteko errepidetik igarotzen diren autoen –hau da, Izurtzatik be pasatzen diren autoen– kopurua eta eroaten daben abiadura handituko dela azpimarratu dau Lorea Muñozek, eta euren Durangoko Udalari luzatutako proposamena bestelakoa zela azaldu dau: Durango eta Mañaria arteko errepedearen osagarri, bidegorria eta oinezkoendako espaloia eraikitzea da Izurtzako Udalaren egitasmoa.

Izurtzako herrigunea gurutzatzen dauen trafikoa zenbaterako murrizteko helburuz dihardu Gobernu Taldeak bere

jarduna burutzen –saihesbidearen egitasmoa, kasurako–, eta, nabarmentzen dabenez, autoa da gaur egun izurtzarren %97k darabilen garraiobide bakarra.

Biribilgune lanak, Durango eta Izurtza arteko oinez edo bizikletan egiteko aukera hobetzeko baliatzea ebela helburu dinoe Izurtzako udal arduradunek. Biribilgunea eraikitzen hile honetan hasteko diren arren, euren asmoekin jarraituko dabela dino Izurtzako alkateak. ■ I.E.

Tabiran eraikiko daben biribilguneak trafikoa eta autoen abiadura handituko dau Izurtzako alkatearen ustez

Bizkaiko Aldundia hile honetan da biribilgune lanak hasteko



ATXONDO

Arrazolako Anbotopeko elkarteak erabiltzen dauen lokala iztea agintzen aza-roan ateratako alkatetza dekretua berrestea onartu dabe Gobernu Taldeko ordezkariak; kontra bozkatu eben, aldiz, jeltzaleek. Alkatetza azaldu ebanez, Arrazolako udaletxe izandakoan egokitu asmo ditueen etxebizitza sozialak eta behekaldeko denda eta taberna egiteko leku falta da orain sei hilabete Udala elkarteak itzi daien eskatzera bultzatu eban arrazoia.

1976an sortu ebenetik, hilero 51 euroko errenta ordaindu dau Anbotopeko elkarteak lokal publikoa erabiltzearren

Orain 30 urtetik 51 euroko errenta ordaintzen dau Anbotopeko elkarte gastronomikoak urtean, eta Udalak lokal publikoa beste zeregin batzuetara bideratzeko

Udalak Anbotopeko elkarteak lokala itzi daian agindu dau

Orain 30 urtetik Anbotopeko elkarteak erabili izan dauen lokal publikoa izteko dekretua

asmoz berau iztera deitu ditue-nean, administrazioagazko helegitea ipini dau elkarteak. Lokal publikoa orain arte lez erabili ahal izateko, “irmo segituko” dabela dino elkarteak. Gobernu Taldeak lokala itzi daien emondako arrazoiak “ez dira onargarriak”, eta elkartekideek defendatzen dabenez, Anbotopekori ezin leikio egotzi ez auzoko jentea batzen ez dabenez emakumerik onartzen ez dabenez: “Elkartean %14 dira

emakumeak, eta %17 Arrazolako auzotarrak”, nabarmendu dabe elkarteko bozeroaleek. Mendibil zinegotziak, barriz, Udalak elkarte pribatu bat subentzionatzen ezin daela jardun azaldu eban udalbatzarrean. ■ I.E.

“Udalak ezin dau elkarte pribatu bat subentzionatzen jardun”, azpimarratu eban Mendibil zinegotziak

GARAI



Joan den urteko urritik, Morga enpresak dihardu hiriguneko lanetan.

Bi hilabeteen hirigunea gertu izan gura dabe

Begiratokiko lanak eginda, bidea atonduko dabe

Gabonetako atsedenaldiaren ondoren, beharginek berriro ekin deutsee begiratokiko lanei. Oporren aurretik lurrean zementoa botata itzi eben, eta harria jartzea baino ez da falta orain. Ondoan zegoen mahaiak gordeta ditue, lanak amaitzerakoan oster aurretik zegoen tokian jarri ahal izateko.

Hirigunea barrizteko lanak direla-eta, bide ondoan zegoen 20 aparkaleku inguru kendu behar izan ditue

Begiratokia atontzen dabenean, bidea konponduko dabe. Izan be, Aldundiagaz sinatutako hitzarmenaren bitartez, eliza bate-tik bestera doan bide zatia bereganatu dau Udalak. “Autoak bertatik pasatzerakoan herriko hirigunea dela ohartarazteko errepide zati hori bereiztu gura dogu. Getxo eta Forun zelan egin dabenez ikus-tera joateko asmoa dogu geuk be antzeko zeozer egiteko”, dino Gontzal Sarrigoitia alkateak. Obrek dirauen bitartean errepidea itxita egon beharko denez, eguraldia lagun izatea itxaroten dabe herri-tarrei ahalik eta eragozpen gutxi-entzako. ■ J.G.

DURANGO

Merkataritza suspertzeko plangintza jarri dabe martxan

Merkataritza suspertzeko plangintza berezia jarri dau martxan Durangoko Udalak, eta horretarako Ikei aholkularitza-enpresa kontratatu dau. Uriko merkataritza zein zerbitzu arloa suspertzea eta indartzea dabe helburu. Urtarrilean merkataritzaren egoeraren gaineko diagnosis osotzeko galdera sorta egingo deutsee Durango eta Iurretako 300 herritarri; baita 150 merkataria eta ostalariri be. Jakin eragin dabenez, eskualdeko merkataritza gunerik garrantzitsuen a da Durango; halan be, lehiagaitik zein kontsumo eta aisialdirako joeraren hazkundeagaitik, “aintzindaritzari eusteko ahalegin geroago eta handiago egin behar da esparru pribatu zein publikoan”. Hori aintzat hartuta, uriko merkataria elkarrekin dihardue lanean.



Txiki Parka egokituko dabe Landako erakustazokan

Landako erakustazokako 3. moduluan jostailuz hornitutako Txiki Parka egokitu dau Udaleko Kultura Sailak. Zapatu honetan-txe hasita, urtarileko, otsaileko eta martxoko asteburuetan izango da zabalik Txiki Parka, jakin eragin dabenez, 17:00etatik 20:00etara. Doako zerbitzua izango da eta “dibertitzeko eta gus-tura egoteko toki bat eskain tzea” dabe helburu, “gurasoak eta umeak elkarrekin jolasteko aukera eskaintzea” ez eze. Gainera-ko parke publikoen “estalitako alternatiba” izan gura dau.

IURRETA

Borjak zinegotzi jarraituko dau, talde-loturarik barik

Fernando Borjak inolako udal taldegaz lotu bako zinegotzi lez jarraituko dau Udalean, azken udalbatzarrean berretsi denez. Ez dabe onartu, baina, Borjak eskatu lez Udaleko batzorde dene-tan botoa izatea. Udal talde sozialistatik bota aurretik kide zen batzordeetan (Ogasuna, Hirigintza eta Gizarte Ongizatea) bakarrik mantenduko dau botoa, horregaz lotutako eskubide ekonomikoekin. Talde politikoendako diru-laguntzarik ez dau jasoko. Bizkarzainari ustez sexu erasoa egiteagaitik bota eben Borja alderdi sozialistatik urrian. PP abstenitu egin da, PSE-EEk erabakia epaia emon aurretik hartu ebala arrazoituta. Talde sozialistak ontzat hartu dau aurkeztutako txosten juridikoa.

Gabonetako argazki lehiaketa Maria Carmen Fernandezentzat

Iurretako Udalak antolatutako Gabonetako argazki lehiaketa Mari Carmen Fernandezek irabazi dau. Lehiaketako gaia ‘Zal-diak’ izan dira. Bestalde, herriko gaztetxoek zuzendutako Olen-tzerori Gutuna lehiaketa Ibai Merinok irabazi dau 3-5 urte arte-koen mailan, Irene Intxaustok 6-9 urte artekoan, eta, Lexuri Armentiak 10-12 urte artekoan. Azkenik, Eskaparaterik Doto-reena lehiaketan Estudio 1 izan da irabazlea, Peluqueria esti-las Isa geratu da bigarren, eta, Undarri Bike hirugarren.

GABONAK IRUDITAN



Judith Fernandez



Judith Fernandez



BERBAZ >

“Presidente kargua auzoko gazteren batek hartzea gustatuko litxakit”

Herriak elkartasunerako proiektuak bultzatzeaz gainera, urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen ditu auzoan.



Judit Fernandez

Pedro Arebalo •

■ 53 urte

■ Herria auzo elkarteko presidentea orain dela zortzi urtetik

Herria auzo elkarteko kideak lanpetuta harrapatu doguz Saharara bidaltzeko elikagaien karabana antolatzen; saltoki, ikastetxe eta udalekin hartu-emon estua daukie eskualdetik kanpamenduetara laguntza bidaltzeko. Elkartearen hiru hamarkadako ibilbidea errepasatzeko, Pedro Arebalo “Periko”-gaz batu gura izan dogu.

Elikagai bilketa amaitu dozue Durangon.

Bai, aurrekoetan baino zeozer gitxiago batu dogun arren, oso pozik gagoz kanpainak saltoki eta ikastetxetara izandako erantzunagaz. Durangon bakarrik sei tona inguru batu doguz.

Durango auzo elkartea zaien arren, eskualde osoko kanpaina antolatzen dozue.

Durango jasotako elikagaiak guk geuk biltzen doguz, eta gainerako herrietako koordinazioaz be arduratzen gara. Denak jaso eta, otsailean, Euskal Herriatik irtengo den karabanara eroaten dogu.

Elikagaiak bakarrik ez dira izaten, baina.

Udalek emondako laguntza-gaz elikagaiak garraiatzeko trailerra erosten dogu, eta

behin kanpamenduetara hel-tzen denean bertan izten dogu ibilgailua.

Zazpi urte daroazue karabana antolatzen. Zelan lortu dozue herri guztien babesa?

Durango ekin geuntsan lanari. Hurrengo urtean Berrizen be hasi ziren, eta baita Abadiñon, Zaldibarren, Atxondon, Iurretan eta Mallabian be. Izurtza, Mañaria eta Garai izan ziren proiektuagaz bat egin eben azkenengo herriak.

Tindufeko kanpamenduekin hartu-emon zuzena daukazue. Zer egoeratan dagoz?

Elikagaiei jagokenez, nazi-noarteko geroago eta laguntza gitxiago heltzen jake. Jaso doguzen azken barrien arabera, abenduan biltegietan zituen azken elikagaiak erabiltzen hasi ziren.

Uda sasoiari ume sahararrak etan hartzeko ekimena be antolatzen dozue.

Orain sei urte inguru Berrizko Udalagaz bat egin genduen, euren esperientzia ezagutu eta geure familietan be udan kanpamenduetako umeak hartzeko. Lehenengo urtean lau etorri ziren, eta urtetik urtera geroago eta gehiago datoz.

Elkartasunerako proiektuak antolatzeaz gainera, urtero hainbat ekitaldi prestatzen dozue.

Otsailean txitxiburduntzia antolatzen dogu, Maiatzaren lehen auzoko jai nagusia izaten da, eta adin eta gustu guztietakoentzako ekintzak prestatzen saiatzen gara. San Juan suak eta bazkideentzako irteerak be egiten doguz.

Zelan sortu zen elkartea?

Orain 32 urte auzoan geunkaz arazoei aurre egiteko sortu genduen elkartea. Sasoi haretan inguru hau “Matadero” legez ezagutzen zen. Kanpotik etorritako beharginez osatutako auzoa zen. Arazo nagusiak, San Rokeko honda-kindegia, saihezbidea, eskola falta eta urbanizazio arloko kontuak ziren.

“Durangaldetik, urtero, 9 tona elikagai bidaltzen doguz Tindufeko kanpamenduetara”

“Gazteek elkartearen ardura hartzea oso gatz ikusten dot. Beste sasoi batean bizi gara”

“Elkartearen ibilbidean taberna martxan jartzea ezinbestekoa izan da”

Arazo horreek konponduta dagozen arren, auzoetan beti dago zer hobetu.

Saihezbideko zarata dela-eta, zubian panelak jarri ditue. Autoek abiadura moteltzeko badenak jartzea eskatu dogu. Arbolekin balkoi batzuetan ditueen arazoei be irtenbidea bilatzen dihardugu. Kutsadurari jagokenez, fundizinoz inguratuta gagoz, eta gai horrek be arduratzen gaitu.

Txabola bategaz hasi zinen eta gero taberna zabaltu zendueen.

Elkartearen biziraupenean tabernak garrantzia handia izan dau. Elkarteko kideok bat egiteko topagunea izatea ezinbestekoa izan da.

Kultur arloan be lan handia egin dozue.

1980an hasita, Silvio Rodríguez, Pablo Milanés, Joaquín Sabina, Lluís Llach, Oskorri, Laboa eta beste hainbat musikari ezagunen kontzertuak antolatu genduzen. Georges Moustakiren kontzertura 2.500 lagun hurreratu ziren.

Auzoko gazteak prest dagoz erreleboa hartzeko?

Oso gatazka izango da hurrengo belaunaldiak orain arte egingandako lanari eustea. Beste sasoi batean bizi gara. Presidente kargua gazteren batek hartzea gustatuko litxakit.

■ Jone Guenetxea

EKONOMIA[>]

>ABADIÑO

Alko Recordeko beharginak erregulazinoaren kontra dagoz

Alko Record enpresan erregulazino espedientea jarri gura dabe martxan. Abenduan beharginek neurri horren kontrako elkarretaratzeak deituzitueen, eta lan ikuskaritzagaz be batzartu dira.

ELA sindikatuak jakitera emon dauenez, "enpresa honek azken urteotan irabazi handiak izan ditu, eta une honetan eskarien beherakada izan dauelako halako erabakiak hartzea ez da bidezkoa".

Azken urteotako irabazien aurrean, neurri hau hartu gura izana gogor salatu dau ELA sindikatuak

Ebazpenaren zain, 2009an kaleratzerik eta espedienterik ez egotea eskatzen dabe sindikatuak. ELAtik azaldu dabenez, neurri horrek 260 langiletik 210 laguni eragingo leuskio, urtariletik aurrera lanaldi erdian langabeziara bidaliz. Beharginek %100 kobratzea eskatzen daben arren, ez dabe enpresagaz akordiorik lortu. ■ J.G.

>DURANGALDEA

Prosens enpresak Toribio Etxebarria saria jaso dau

Enpresa proiektuen atalean, Endika Gandarias durangarraren ikerketan oinarrituta osatutako MICROM prototipoaren egitasmoa saritu dabe

Makina-tresna sektorean sistema barritzaileak sortzea: horixe da Endika Gandariasek sortutako Prosens enpresak daukan helburua. Orain dela lau urte irakasle durangarrak Mondragon Unibertsitatean doktorego tesia egiteari ekin eutsan Ideko Teknologia Zentroagaz eta Cardiffeko Unibertsitateagaz batera. Azterketaren bidez, makina erremintako kabezalen fenomeno fisiko barri bat aurkitu eban, eta ikerketa horretan oinarrituta, MICROM prototipoa sortu eban. Gandariasek pozik hartu dau saria: "Sari hau bultzada handia da. Alde batetik, bide onetik goazela esan gura dau, eta, bestetik, laguntza ekonomikoa da".

MICROM merkaturatzeko, Gandariasek Patxi Aristimuño eta Iñigo Bediagagaz Prosens enpresa sortu dau: "Mekanizatu eragin handia izango dauen aurkikuntza garrantzitsua dela-koan gagoz". ■ J.G.



Gandarias eta bere lankideak saria jasotzen.

>IURRETA

Motoziklismo arloko teknologiei buruzko berbaldia institutuan

Herri Torrontegi eta Efren Vazquez gidariak elkarregaz martxan jarritako proiektua azaldu eben



Torrontegik eta Vazquezek ikasleen arreta erakarri eben.

Iurretako GLHB institutuko automozino sailak motoziklismoan Euskal Herriak emon dauen pilotu ezagunenagonebidatu dau. Herri Torrontegi gorliztarrak, automozinoko ikasleei arlo horretan erabiltzen diren punterengo teknologien barri emon eutsen Gabon aurreko azken azalpen legeaz. Gidari bizkaitarrak 12 denporaldi egin ditu Munduko Txapelketan parte hartzen.

Torrontegiren azken proiektua, Efren Vazquez pilotu bilbotarraren ibilbide profesionalari bultzada emotea da. Moto gidari bilbotarra be Iurretara gerturatu zen profesionaletan izan dauen esperientzia azaltzeko. Ikasleek adi-adi entzun zitueen bi gidari handi honeek emondako aholku guztiak.

Hitzaldiaren helburua ikasleengan txapelketetako mekaniko izateko zaletasuna bultzatzea da.

Vazquezek 125 cc-ko Espainiako Abiadura Txapelketan eta Mundialean parte hartu dau. Beraz, Herri Torrontegiren eskarmentua eta Efren Vazquezen ilusioa uztartuz, baleiteke etorkizunean motoziklismoaren gailurrean berriro be euskal gidariren bat ikustea. ■ J.G.

>DURANGO

Erraldek 7.300 abelburu merkaturatu zituen igaz

Durangoko Erralde hiltegiak balorazino positiboagaz amaiaitu dau 2008a. Eneko Egibar gerentearen esanetan, joan zen urtean bi milioi kilo behi haragi merkaturatu zitueen. 7.300 abelburutik 6.300 Bizkaikoak izan dira, zehaztu dauenez.

Egibarrek gaineratu dauenez, "sektoreak Erralden jarri dauen konfidantza eskertzea da, eta indar handia emoten deusku".

Laster Berrizera lekualdatuko daben hiltegiaren lan dinamika "eredu" bihurtzen dabilela be azaldu dau enpresako gerenteak. Zamorako abeltzainek Durangoko hiltegiak zelan funtzionatzen dauen jakiteko interesa agertu ei dabe, eta Lugoko albaitaritza fakultatera be joan dira hiltegiaren zelan lan egiten daben azaltzeko. ■ J.G.

Ekaina arte merkaturatu gura ditueen 4.000 bildotsen laurdena saldu dabe Gabonetan

■kolaborazinoa



Jose Petite
CCOO sindikatua

Aukera aparta galdu da

Kutxak bat egiteko proiektua oinarri ekonomiko eta sozialeko proiektua zen. Hainbat instantziatik aholkaturiko finantza-esparruko bat egite prozesu bati aurre hartzen zion. CCOO bat egitearen alde egin du bere eduki ekonomiko eta sozial ezin hobeengatik, eta BBK eta KUTXAren bat egitea Caja Vitalen parte-hartzea oztopatuko ez zuen lehen pausoa zela sinesturik. Garbi dagoenez, proiektua tentsio politikoen eta interes elektoralen menpe erori da.

Errealitate berri bat bereganatzeko ezintasuna agertu du, beste behin ere, sindikalgintza abertzaleak

Aukera ezin hobea galdu da, etorkizunean berriro ere ematea zail izango dena. Espero dezagun proiektua ez dadila kaltetua gertatu egoera ekonomikoaren bilakaeragatik, eta ez dadila baldintza okerragoetan egin behar izan. Paradoxikoa da: hiru kutxen bat egitea urteetan oztopatu dutenak dira, hain zuzen ere, biren artekoaren kontra agertzeko hiruren bat egitea defendatu dutenak. Nolanahi, klima politiko ez hain tenkatua beharrezko dela dioten argudioak etorkizun zehazgabea eta aurreikusi ezina dakarkigu epe motzean. Arlo sindikalari dagokionez, errealitate berri bat bereganatzeko sindikalgintza abertzaleak duen ezintasuna frogatu da beste behin ere: BBK eta KUTXAren langileen eta negozioaren heren bat Euskal Herrikan kanpo dago. Bi kutxen langileria lan egiteko lekuaren arabera bi zatitan banatzeko daukaten seta horrek –"hangoak eta hemengoak"– bere aletxoak jarri du lan-taldeari egonkortasuna eta segurtasuna emango zizkion akordioa deuseztzeko. CCOO garbi agertu du, beste behin, kutxen bat egitearen aurrean duen posizioa, eta gure sindikatuarentzat etorkizuneko edozein ahaleginetarako erreferentzia izango diren akordioetan gauzatu du posizio hori; esan dugunez, oso eszeptikoak garen arren aukera horren gertutasunaz.

KULTURA[>]

Judit Fernandez

BIDEOA > 16. KORRIKA

Plateruenean grabatu dute Korrikaren bideoa

Datorren Korrika iragar-tzeko baliatuko duten bideoaren grabazioa-ko Plateruena antzokia hautatu du AEK-k. Abenduaren 21ean egin zuten hitzordua eta deialdia bideokliparen grabazioan parte hartu gura zuten euskaltzale guztiak Plateruena hurbildu zitezten.

Hiru orduz aritu ziren antzokian, musika eta irudiak uztartzen dituen bideokliparen grabazioa egiten. Bideoklipa Durangon grabatua duen ekimena Tuteran hasi eta Gasteizen bukatuko den Korrika da: martxoaren 26tik apirilaren 5era bitartean Euskal Herriko hiri zein herrietan euskararen

aldeko testigua zabalduko duena.

Euskararen herrira, Euskal Herrira bizimodu hobebaten bila etorri eta euskara ikasi eta seme-alabei transmititu dieten lagunak dira 16. Korrikan AEK-k omendu gura dituenak. Horregatik, *Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira* lema prestatu dute, aurtengo Korrika esaldi batean laburbiltzeko: gurera datozen lagun guztiei euskaldunek egiten diegun ongietorriaren isla izan dadin.

Euskararen normalizaziorako, "lekukoa eror ez dadin, esku guztiak dira beharrezko", dio aurtengo Korrikaren mezuak. Eskualdean, apirilaren 4an izango da testigua denon eskura. ■ I.E.

12-13 Amuriza Elortzari galdezka

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa irabazi duen Igor Elortzarekin Xabier Amurizak izan duen elkarriketa jaso dugu aste honetako ANBOTOn.



13 San Agustingo urte hasiera

Geroa Antzerki Taldeari omenaldia eginez antolatu dute San Agustin Kulturgunearen 2009ko urtarileko programazioa.

BERTSOLARITZA > ELKARRIZKETA

"Lehenengo txapelaren euforia barik, lagunartean ospatu genduen"

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa irabazi izana Platerueneko lagunartean ospatu ebala dinotso Igor Elotzak Xabier Amurizari goiko esaldian. Hori eta bertsolaritzari buruzko hainbat kontu, sentipen eta eritzi be konpartitu ditue bertsolari biek, ordubeteen elkarren parean jesarrita

X. Amuriza: *Lopategiren marka ondu dozu...*

I. Elortza: Bueno... Historiako horgeratuko da... Segurutik, hemendik denporabatera baloratuko dot hori gehitxoago: orain momentuan ez deus horri inportantzia lar be emoten. Egia da, gainera, nik bostak 12 urtean irabazi ditudala eta Lopategik leheneNgora irabazi ebanetik azkenengora 25 bat urte pasatu zirela... Gurako neuke nik be hainbeste urtean gorengo mailan ibiltzea, txapel barik be...

Lopategiren marka ontzeaz gainera, zuek Lopategigaz hazitakoak be bazarie...

Bizkaiko txapelketako finalean gengozen denok gara Lopategigaz hazi eta hezitakoak: berezia da, eta maisua txapel kopurutan gainditzeak badauka bere karga emozionala. Aspaldiko partez, otsailean gagoz bera-gaz bazkaltzeko geratuta. Komentatuko dogu, ia berak zer dinon...

Bizkaiko Txapelketan oso ume agertu zinen: Arriagako argazkian 15 urtegaraz gertzen zara...

Denon gogoan geratu da zure geratu aldi ha... Zure gogoan momentu traumatikoa izan zen Arriagako ha?

Momentu oso gogorra izan zela gogoratzen dot: negar egiteko puntuan egon nintzen.

Momentuaren trszendentzia ez nintzen oso kontziente, baina, gerora, hainbat urtean bel-dur handia emon izan deuste neurri luzeek: doinu hori-zeurea da barrez- orain urte bi udan Altzon erabili neban ordutik lehenengoz, agur baten; handik hamasei urtera. Bere trauma puntua eduki eban, bai.

Nagusien txapelketan parte hartu zenduen haretan, ume bat zinela ikusten dozu orain?

Nerabe, eta neurri batean ume be banintzen... Orain konturatzzen naz adin haretarako ardur handitxoegiak hartuta ibili ginela, beharbada: ardura handia delako adin horregaz nagusien txapelketa batean eta finalean parte hartzea, eta baita horregaz lotuta datorren denetarik hainbat gairen aurrean erantzun beharra edo denetarik giroetan ibili beharra. Umezarotik urtetan, ia-ia gaztarotik igaro barik, nagusi ardurak hartu genduzen, bai. Baina gazteak izaten be jakin izan dogu, zorionez...

"Zortzi bertsolariok izan genduen distira uneren bat BECeko finalean"

Polemikoa be izan zen ha... Ni neu oso kontra nengoen zuek finalean sartzeaz...

Eztabaida egon zela eta zu kontra egon zinela jakin genduen, bai. Baina gu munduko ilusino guztiagaz joan ginen, eta hein batean eztabaida ez zihuan gugaz. Kontran egon zinienok be, baina, gero plazan tokatuz gero, beste denen beste lagun du euskuzuen... Oso kontziente ez ginen, baina orain neuk be gaztetxoak ikusten ditudanean pentsatzen dot zenbateraino tokatzen ete den 15 urtegar halako lanetan sartzea.

"Azken bi bertsoak izan zeitekezelakoan jaiki nintzen bakarkakora"

Zelan ospatu zendueen bosgarren txapela?

Lehenengo txapelak eragiten dauen euforiatik apur bat apaltxoago, baina betiko lez: Durangora etorri ginen, Plateruenera. Hor, gure 'bandak' prestatuta zeukan pintxo-jan eta tertuliarako giroa, eta gero gure zirkuituan, goizaldeko bostak ingurura arte ibili ginen... Dantza egiteraino be ailegatu ginen, horretan mingaina dantzatzzen

baino abildade gitxiago izan arren...

Puntu baten erantzunean berbaz eta bakarkakoan keinuz, txapelari agur egin zeuntsala hartu genduen entzuleok. Halan izan zen?

Lehenengoa, hamarrek txikian egindako laprastada bategaz disgustura geratuta, berbaz, "txapela badoa hara" eta "txapeldunari emongo deus beharbada" bota neban. Lehenengo eta behin esan behar dot, gauez parrandan ibili ginenon artean Jon Maia handi eta luzea zegoela, eta sekulako bronka bota eustala halako gauzak egitearren. Baina halako gauzek urten egiten deuste... Bakarkakora, azkenengo bi bertsoak izan zeitekezelakoan jaiki nintzen gero, eta ondo egiteko gogoagaz, preminagaz eta amorrugaz be bai; keinua espontanea izan zen, eta neuk be ez dakit zer zen gehiago: agur esatea, edo, "izan daitela izan behar dauena baina horgeratzen dira honek bi bertsook" esatea.

"Buruz burukora ez sartzeko arriskua ikusten neban"



Bakarlaren ondoren ez zenduen buruz burukora pasatzeko aukerarik ikusten?

Aukera bai, baina egia esan gatz ikusten neban. Norberak, barrutik, saioaren irakurketa oso ona be ez dau egiten, baina, egia esan, final gitxitan pasatzen den moduan, zortziok izan genduen distira momenturen bat. Unai sartuko zela ikusten neban, baina bigarrenaren kiniela oso gatz ikusten neban.

Bakarreko lana egin eta gero be bai?

Bai, eta, segurutik, Arkaitzek poto egin ez balu, bera sartuko zen. Zalantza handia neukan. Parte hartutako azken txapelketan txapeldun izanda, ni mentalizatuta nengoen oso posible zela ez sartzea, eta handik aurrera buruz burukoa entzun eta arratsaldea duintasunez eroateko mentalizatzen be banengoen. Sartzeko aukerak ikusten nituen, baina ez sartzeko arriskua be bai. Unai be, lehertu ez izanaren sentipenaz zegoen, eta buruz burukoan esan neutsan neure buruari: "Orain erakutsi behar dogu hemen egotea geuk merezi dogula".

Buruz burukora artekoagaz ez zengozen konforme?

Zapore gazi-gozoa neukan... Batez be, hamarrek txikiagaz ez nintzen bape konforme geratu. Zortziko nagusian Unaigaz egindako saioagaz gustura geratu nintzen, zortziko txikian Onintzagaz eutsi neutsala uste dot, eta bakarkakoagaz gustu-

kronika

Txapelketa amaitu eta Igor txapeldun! BEC topera, harrera beroa bertsolariei, eta honeen erantzun ona. Bizkaiko lehenengo txapelketatik 50 urte betetzen ziralakantagai agurrean. Orduan "Txo" Alberdi izan genduen ordezkari. Unai "nire agurra zagozenoi ta/nahi arren ez dagozenai" eskaini eutsen.



Igorrek BOTA hitzak zer esan gura eban abisatu euskun: "B bertsolari, ta O onena / T=txapeldun ta A aurten".

8ko nagusian tentsinoa nagusi. 8ko txikian Unai eta Arkaitz "asto bategaz, Done Jakue bidea egitera doazen erromesak dira. Halako baten astoa etzunda". Umoretzu biak, okurrentzia

politekin. Arkaitzen "lepoan hartu ta eroango dogu" esanari, Unai: "Et, et, et, ni ez noa holan Santiagora / goizero emon deusat bolloa ahora / zugaz deko aspalditik jaleoa, droga / igual zu etzun ezker berau altzauko da". Nor terkoago, bedeinkatu barik geratu zen astoa Santiagora heltzeko 15 legoa faltan. Historiako aipuak, ipuinetakoak...

10eko txikian "Unai eta Onintza, afalostean haserretu eta lotara joanaz batera. Hau zurrunka hasi jako eta Unai kitzartu". Txortaldi bat egin eta konpondu leikenari ezetza Onintzak, ez ebe-la narrutan egingo. Unai konponbidea ikusi ez eta TeleBilbao aurkitu eban eskape moduan.

Gaia emonda Unai etorkin bat izan zen. Habaneran kantatu eban, oso ondo egin be. Igorri "aittite-amamak zabal duta kodenda zarratzea tokatu jakon. Zabalik egoan azken eguna zen".

Igorrek, ordura arte brillo gitxitxo erakutsi baeban be, gora egin eban. Laboaren Izarren hautsa doinu osotu ebazan bertso biak. Bikain. Zailtasun dezente koak iruditu jatazen.

Bfasera pasatu ziren Unai eta Igor. Saio erregularra egin eban Unai ordura arte baina ez Igorrek, edo ez behintzat beste batzuetako argitasunagaz. Biak bietara 8ko txikian eta Mainontzi doinu kantatu eben kartzelara orduko. Biak oso ondo, baina eltxoen lanean eztenkada gozoagoak bota zituen Igorrek, eta apurka-apurka gaina harripatu eutsan ordura arte aurretik zihuan Unai. Kartzelakoan biak maitasunari kantueginez. Igorrek 5. txapela jantzi eban, eta Unai "ez begiratu errukiz, ez begiratu arraro/nahidozunapentsatuenamoratuta nago" agurtu zen. Zorionak biori. Eskerrik asko denori amets eragitearren.

Kristina Mardaras



Judit Fernandez

ra geratu nintzen. Momentu haretan, geratzen ziren bederatziz bertsoetatik bederatzitan jo behar nebala diana esan neutsan neure buruari. Bederatzietan ez, baina batzuetan jo nebalakoan, gustura amaitu neban.

Buruz burukoa amaitu zenean, pentsatuko zenduen irabazteko aukeran, ezta?

Ez nekien, ze Unairen kartzelakoa ez neban entzun. Neurea amaitu eta jesarri nintzenean, Unaik esan eustan lehenengo gauza: "Oraindino txapela irabazi behar dozu!"; ez zegoen lar gustura kartzelakoan egindakoagaz. Ia-ia elkarri parka eske eta txapela bestearen buruan ikusteko desiatzen gengozen. Txapel hau Unaik eroatea oso justua izango litzake, gainera, gauza askorengaitik: ibilbidea-

"Taula gainera igon eta Egaña eta zeu ikusi zinduedazen"

"Buruz burukoan Unai eta biok egonda, gitxienekoa zen txapela"

gaitik, txapelketa osoagaitik, etab. Neu be poztu egingo nintzen. Buruz burukoan Unai eta biok egonda, txapela gitxienekoa zen.

Publikoa lar argizatuta zegoela ez dozu uste?

Publikoari ez begiratzea izaten da onena, baten bat ikusiz gero bertara joaten da-eta begia. Ahalgintzen naz ez begiratzen, baina, egia esan gora igon eta lehenengo ikusi nituen bi pertsonak zeu eta Egaña izan zinen... Edo nor be ez zarie, eta bertso bukaeretan hara joaten jatan begirada, gura ez arren.

Bost txapelek burura ekartzen deusuen laburbilduko?

Erraza ez da izango, izan be, lehenengoagaz akordatzan naz ondo, baina tartekoez ez hain-

beste... Bosgarrenaz, buruz burukotik kanpo geratzeko arriskutik txapela irabazterainoko sentsazio hori nabarmenduko neuke. Laugarrenaz, akordatzan naz kartzelako gaia Euskal Herriko egoeraren ingurukoa zela eta hilabete inguru

"Txapelketa honetako nire apostua izan da Izarren hautsa"

lehenago Anoetako proposamena aurkeztu zela, eta giro horretan botatuko hiru bertso izan zirela azken hirurak. Bigarrena, Euskaldunako lehenengo finala izan zen, eta lekuaren gozotasun eta elegantziaren gogorapena daukat, eta Haritz Lopategigaz jokatu nebala buruz burukoa be bai: kartzelako gaia oso sujerentea egin jatala gogoan dot: "Gabon gaua da, mahaian plater bi dagoz, baina bakarrik zagoz". Gitxitan sentitu dodan zirrararen sentitu neban bertsoak kantatzen. "Iru-dipena dot hala/atean din-don tinbrea jota barrura sartuko dala" amaitu neban.

"Bost txapeletatik lehenengoa da bereziena"

Lehenengo txapelagaz dozu, beraz, akordu gehien?

Lehenengoa espeziala da: ikusi egiten neban neure irribarrera. Txapeldun izendatu nindueenean, Arriagako bigarren pisuko palkora zelan begiratu neban akordatzan naz: han zegoen lagunak. Txapel harek behar neban emon eustan. "Bertsolari izan gura dot eta jenteari demostratuko deus banazela", esan neutsan neure buruari.

Bost txapelen mailaketa afektibo bat egingo...

Lehenengoa lehenengo, txapelduna izatea sekula bizi bako

esperientzia zelako eta halako aitorten bat behar nebalako. Bigarren, paretsu ipiniko neukez bigarrena -konfirmazino-koa- eta bosgarrena: azkena izan delako eta bertsolari moduan helduaroan sentitzen nazelako. Bertsolari izan gura bat zen lehenengo txapela, eta bertso munduan neure gustuen arabera jokatzera azken hau. Hirugarrena eta laugarrena geratuko litzakez hirugarren.

'Izarren hautsa'. Ez zinen gus-tura geratu finalurrekoan doinu horregaz egindakoagaz? Txapelketa honetako nire apustua izan da doinu hori. Azkenaldian badago joera bat bertso munduan, alde estetikoari garrantzia gitxi emotekoa, eta gaiak narratiboki lantzeari erri-maren edertasuna eta metrikaren erritmoa gehitu gura izan deusadaz. Hori izan da nire apustu kontzientea eta landutakoa. Erraz osatu nituen hiru bertsoak Erromon, baina benetan gura neban hori lortu barik.

"Bertsotan ondo egiteko, txapeletan ez da lar pentsatu behar"

Baina finalean berriro erabilizendun Erromon estreinatutako doinu ha...

Bai, banekielako kapaz nintzela. Finaleko bakarkako bost bertsoak hurrengo batean be bota leitekez...

Itaun alu bat: hautatu behar bazendu, zer nahiago, Bizkai-ko bost txapelak ala Euskal Herriko bat?

(Barrezka...) Ez nau lar ardurtzen Euskal Herriko txapelak: hartuko neuke, baina bertsotan ondo egiteko txapeletan ez da lar pentsatu behar.

Nik uste dot irabazi zeinkela Euskal Herrikoa, zuk zelan ikusten dozu?

Oso gax ikusten dot, eta, gainera, ilusino eta zer pentsatu handiago eragiten deus GuTa Gutarrak lako beste proiektu batek, adibidez.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

URTARRILAK 10 22:00etan
ESTAMPIDA (Arg) +
RISE TO FALL + NO DRAMA
KONTZERTUA. Sarrera: 8 euro.

URTARRILAK 11 19:30ean
AHOTSAK
HITZALDIA. Sarrera Doan.

URTARRILAK 16 22:00etan
AMA SAY +
BORROKAN (Bera)
KONTZERTUA. Sarrera: 10 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300



KAMPILLO o El Corazón de las Piedras

Otaca teatro (Madrid)

Urtarrilak 10
larunbata 20:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA



HITZ

Liburudenda

14 urtarrraren 14

ANTZERKIA > PROGRAMAZIOA

Geroa Antzerki taldeari omenaldia urtarrilean

Durangoko Geroa antzerki taldea sortu zutela 30 urte betetzen direla gogoratuko dute

Durangon izan den antzerki talde profesional bakarra sortu zela 30 urte betetzen dira aurten. Azken emanaldia 1997an Eibarren egin zuten arren, Durangok “zor zion omenaldia” antolatu dute urtarrierako San Agustinen: erakusketa eta antzezlanak izango dira.

Urtarrilaren 10etik otsailaren 7a arte ikusgai izango den eta Txelu Angoitia argazkilariak koordinatu duen erakusketa izango da, batetik, San Agustin kulturguneko sarreran. Bertan, taldeak hiru hamarkadatan egindako antzezlanetan erabilitako jantziak, egindako argazkiak, egunkarietan argitaratutako kronikak eta antzezlanen grabazioak bildu dituzte.

1979an profesionalizatutako antzerki taldeko kide izan ziren aktoreetako lau batu dituzte kulturgunean egindako aurkezpenera, eta, atzera begiratuta, Geroa taldearen antzerkia egiteko pasioa

San Agustingo sarreran ipini dute erakusketa

Geroarekin lotutako bost antzezlan ere izango dira

zelakoa zen nabarmendu dute, batez ere. Durangoko antzerki talde profesional bakarraren historia osatzen duten 100 lagun baino gehiagoren bozeramaile izan ditugunek azpimarratu dute 17 edo 18 urte zituztela Geroarekin hasitako ibilbidean antzerkia ulertzeko eta bizitzeko modu bat ikasi zutela, eta 30 urte geroago ere, ikuskera hori mantentzen dutela.

Antzerkia lantzeko modu hura, konpromisoa eta elkarbizitza berbetan laburbildu dute Geroan jardun eta omenaldiaren aurkezpenean izan diren antzezleek. Geroa osatzen zutenek sortzen zuten antzezlanaren inguruko guztia: musika, argia, testuak... Eta egunean hamarretik gora ordu ematen zituzten lanean.

Lan horren emaitza izan ziren –erakusketan ikusgai dauden Euskal Herriko, Espainiako eta Europako egunkarietan Geroaren lanei buruz argitaratutako kroniketan jasota dagoen lez– antzezlan berri-tzaile, apurtzaile eta zenbaitetan polemikoak ere izan zirenak.

Hiru hamarkadetan, 1500 ikuskizun inguru egin zituen antzerki taldeari beraz, Durangok egin beharreko omenaldia da San Agustin kulturgunearen sarreran paratu duten erakusketaren eta urtarrierako ekarri dituzten bost obren bitartez egingo zaiona.

Bost antzezlan

Geroa antzerki taldearen omenaldirako programatutako bost antzezlanetan lehenengoa, urtarilaren 10ean izango da: Geroa-kide izandako Alberto Torregrosa antzezle duen Madrileko Itaca Teatro konpainiaren *Kampillo o el corazón de las piedras* izango da San Agustinen 20:00etatik aurrera. Urtarrilean zehar izango dira beste lau antzezlanak ere: Geroaren parte izan zen Paco Obregon antzezle duen, eta 80. hamarkadan Geroa ezagutzera eman zuen *Muerte accidental de un anarquista* izango da urtarilaren 17an, 20:00etan. Gorakada Antzerki Taldearena izango da umeentzako proposamena: urtarilaren 18ko *Cyrano*. Geroako kide izandako Sardo Irisarrik dakarren Eureka Teatroyen *El avaro* -urtarrilaren 24an-, eta Juanlu Escudero antzezle duen *Abraham y Samuel* antzez-lana otsailaren 1ean ere izango dira Geroa omentzeko. ■I.E.

GEURE DURANGALDEA



Fermin Barcelo Irakaslea

Mañariko bentak

Mañariari buruzko edozein deskribapen historiko erreparatuz gero, hauxe izaten da beti azpimarratzen den datua: Mañaria, Durango eta Gasteiz lotzen dituen bide ondoan dagoela kokatua. Adibidez: “*Atraviesa el término la carretera de Durango a Ochandiano y Vitoria, por cuya carretera hacen servicio los carruajes que van de Durango a Vitoria*” idazten du Carmelo Etxegaray historialariak XX. mende hasieran (in *Geografía General del País Vasco-Navarro*, Carreras Candik zuzendua).

Baten batek, agian, zera esango du: “Izurtza ere bide ondoan dago, bada;” edo, bestek: “Baita Otxandio ere.” Bai, horrela da. Baina Urkiolako aldaparen hasieran Mañaria baino ez dago. Eta hemen, kontua, Urkiolako aldapa da. Itsa-saldetik gora arrainez edo burdinez betetako gurdiek igo behar duten aldapa; Gaztelatik edo Errioxatik artilez edo ardoz kargatutako gurdiek jaitsi behar zuten portua. Horrela, beraz, zein Mañaria baino leku hobetik ostatu bat ipintzeko? Eta ez nolanahiko ostatua, garraiolarik nekatuek dituzten premia guztiak asetzeko modukoa; ondo hornitua: animalientzako korta; gurdientzako eta garraiatutako jeneroentzako babeslekuak; pertsonentzako logelak eta jangela; berotzeko beheko suak; eta abar.

Bai. Premia horiei erantzuteko sortu ziren Mañariko bentak; antzinako liburuetan, zeharka bada ere, aipatzen diren ostatuak edo mesoiak: “...una ferrería, cinco molinos, dos Tabernas, Meson, Escuela de primeras letras...” idatzi zuen Iturrizak; edo “...ademas de la agricultura y ganadería, hay un ferrería, una posada pública y 5 molinos harineros en estado regular”, Madozek XIX. mendearen erdialdean.

Duela hilabete batzuk, aspalditik itxita dagoen ostatua ikusteko parada izan genuen. Portuaren hasieran, bide ondoan, Mañariko harri landuaz osatutako ostatu dotorea: Kaltzada. Ikusgarria benetan: logelak, jantokia, sukaldaria, korta erraldoia... komun pare bat eta guzti, atzeko partera begira. Galdi edo zaldien hotsak entzutea besterik ez zen falta, XIX. mendean geundela pentsatzeko. Zenbat istorio gordetako dituzte horma sendo horiek?

EMANALDIAK >

Abenduaren 26an, 2008 urtearen amaiera epeltzera etorri zen Su Ta Gar Durangoko Plateruenera. Hogeigarren urteurrena ospatzen dabiltza azaroaz geroztik Eibarko musikariak, eta datozen hilabeteetan Euskal Herrian zein Espainian hainbat zuzeneko eskainiko dituzte. Su Ta Gar taldearen musikaren zaleentzat aukera bakar eta ezin hobea izan zen Durangoko Plateruenean abenduaren 26an antzokira gertutatutakoek izan zutena.

Aspaldian jo bako kanta asko entzuteko aukera eskaini zuten Su Ta Garrekoek antzokian. 20 urteko esperientzia eta gitarra elektrikoaren doinua oinarri hartuta, denboran zeharreko bidaia izan zen entzuleei proposatu zieten.

Durangoko Antzokiko urte bukaerarako, bertsolarien berba eta kantaerak ere izan ziren aukeran: ohitura bilakatu den eta eskuintzako irudian jaso dugun *Urteko azken bertsoa* izan baitzen Plateruenean: Maialen Lujanbiok, Xabier Payak, Igor Elortzak eta Sustrai Colinak jardun zuten, Unai Iturriaga gai-jartzaile zutela. ■I.E.



Judit Fernandez

IKASTAROAK >

Hiru ikastaro monografiko, urte hasierarako

Astarloa Kulturgintzak antolatutakoak dira urte hasierako Durangoko Arte eta Historia Museoa ikastaroak: Artearen historia, Munduaren historia laburra, eta Erlijioen historia gaitzat dituzten monografikoak dira eskaintzen dizkigutenak.

Artearen historiari buruzko iazko ekitaldiaren jarraipena izango da lehenengoa, eta beste bi ikastaroak ere EHU eta Deustuko unibertsitateko irakasleek eskainiko dituzte.

Artearen, munduaren eta erlijioen historiaz

Antolatzaileen berbetan, “ikastaro sendo eta serioak” dira urtariletik ekainera bitartean izango direnak, eta parte-hartzaileen jakin-mina “berpiztea” dute helburu nagusi.

Urtarrilaren 12an hasiko dira ikastaroak, eta azken hitzordua ekainaren 23an izango da. Hiru ikastaroetan izena ematen dutenek 24 euro, bitan izena ematen dutenek 20 euro eta ikastaro bakarra hautatzen dutenek 12 euro ordaindu beharko dute. Artearen, munduaren eta erlijioaren historiari gerturatzeko interesa duten durangarrentzat prestatutako ikastaroak ekainera arte iraungo dute. ■I.E.



J. Fernandez

DANBAKA >

Taldeen maila ezin hobea berretsi da

Apurrik ere ez da jaitsi azkenengo saioan taldeen maila; ezustekoa, hala ere, gazteenek eman ziguten

Finala urtarilaren 16an izango da The Wet Band, Norman eta Adi Holdenekin; intentsitatea bermatuta dago

Jon Berezibar >Elgeta

Izerdi asko bota da aurtengo Danbakan, izerdia oholtzetan eta baita epaimahaiaren lokietan behera ere, erabakia ez da batere erraza izan-eta. Barikuan, zuzenean neur-tzen azkenak, The Motherfuckers (Arrasate), Barua Banda (Eskoria-tza), Tuesday Evenings (Durango) eta Revelphone (Soraluze) izan dira. Taldeek, ikusi denez, azken kontzertura arte eutsi diote maila gorenari. Erabakia, baina, hartuta dago, eta aurtengo talderik basatienak izango ditugu aurrez aurre urtarilaren 16ko finalean: Norman eta Adi Holden. Eta horiekin batera, atzean geratuko ez zaien The Wet Band.

Barikukoari dagokionez, modu ezin hobean ekin zioten The Motherfuckers arrasatearrek. Entzuleak isiltasunean, musikariak gelditi agertokian, eta, ezustean, ikusleen artean jauzi batekin igo zen abeslaria. Indar berberarekin eutsi zioten saio osoari. Amorrut, gitarra sendoz eta talde moduan ezin trinkoago, maila goreneko hasiera eman zioten gauari.

Barua Bandaren kasuan, hasiera erdizpurdikoagoa izan zuten, kostatu egin zitzaizkien neurria hartzea. Desoreka egon zen une askotan, eta batera eta saxoari esker salbatu zuten saioa. Gero, power poparen indar guztiarekin etorri ziren Tuesday Evenings



DANBAKAKO KONTZERTUA, Argazkian The Motherfuckers taldeko Hodei abeslaria, publikoarekin bat eginda eta dena ematen. JOSETXO ARANTZABAL

durangarrak, eta igarri zen fresko-tasuna eta dotorezia. Saio mami-tua egin zuten, lehen unetik indar-tsu eta erakargarri. Gabezia gehie-

nak agertokia betetzerako orduan izan zituzten, baina talde moduan oso ondo. Eta amaitzeko, ezuste-koa: lehen galbahea ez zuten

pasatu Revelphone soraluzearrek, eta zaila da ulertzen egin zuten saio aitzakiarik gabekoarekin. Sekulako indarra, jarrera eta freskotasuna

erakutsi zuten eta, alde guztietatik begiratuta, saioa paregabea izan zen. Gaztekoen benetan gogor dotozela berretsi dute.

EPAIMAHAIAREN ERABAKIA



THE WET BAND

"Bete egin gintuen kontzertuak, behetik gora joanda. Gitarra-jotzailearen lan azpimarragarria; tresnari probetxu guztia atera zion. Kantariak ere ahots berezia du, distiraduna eta erregistro zabalekoa. Kanta bakoitza bakarrik defendatzen da, eta bikain ezkondu zituzten estiloak. Kantaz kanta, melodia zaindu eta txukun jantzi zituzten abestiak".



NORMAN

"Potentzia handiko taldea: aberatsak erritmiko eta irmoak, indartsuak. Ahotsa pertsonala eta testura handikoa. Zurrumbilao guztia- ren jabe egin eta ohikoari beste buelta bat eman zioten. Aurreikuspen guztiak gainditu zituzten; ez zuten inor epel utzi. Loratuegia izan barik ere, eraginkorrak dira instrumentu guztiekin eta baita konposizioan ere".



ADI HOLDEN

"Eszenaratzea, basatia eta muturrekoa. Emal- naldia, ongi egituratua eta intentsitate handi- koa. Abeslaria animalia da, eta kantak eta taldea bera muturrera eroan zituen. Kanta berean gai dira une baten zati melodikoetatik berehala entzuleen azala urratzera pasatzeko. Ikuskizuna eskaini eta klimaxa ukitu zuten. Eromen kontrolatua taula gainean".

DANBAKA |||||
III. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENA DEBAGOIENA DURANGALDEA

BABESLE NAGUSIA

LAGUNTZAILEA

HEDABIDE LAGUNTZAILEA

Mongol Rallya: abentura, kirola eta elkartasuna



Mallabia eta Ermuko lau gaztek datorren udarako daukien asmoa aurkeztu dabe oraintsu: Mongol Rallyan parte hartuko dabe. Kirola, abentura eta elkartasuna nahasten dira proiektu horretan, izan be, hainbat herrialdetatik igaroko den proba benefikoa izango da.

Euskaldunon abenturarako grinak ez dauka etenik. Batez be, mendian egindako balentriengatik gara ezagun, baina beste alor batzuetan be ez gara atzean geratzen diren horreetakoak. Horren adibide da Mallabia eta Ermuko lagun koadrila baten proiektua. Datorren uda partean Mongol Rally benefikoan murgilduko dira, abentura, kirola eta elkartasuna uztartu asmoz.

Miguel Moyano, Erik del Rio, Josu Azpiri eta Unai Bergaretxek osatzen dabe lasterketa edo proba horretako taldea. Ermu-Ulan-Mallabia: izen horixe jarri deusie euren proiektuari. Madriletik urten eta Mongoliako Ulan Bator hiriburura heltzea da euren helburua, baina lasterketa izatetik

Proban lortutako diru-laguntzei esker ekarpen handia egiten jake Gobernu Kanpoko Erakundeei

aparte, igaroko ditueen herrialdeetako biztanleei elkartasuna adieraztea be xede izango dabe.

Institute of Adventure erakundeak antolatzen dau Mongol Rallya, beste hainbat probekin egiten dauen antzera. Erakunde horrek kotxe lasterketak erabiltzen ditu kooperazino-lanak egiteko, Asian, Amerikan eta Afrikan. Proban lortutako diru-laguntzei esker ekarpen handia egiten jake Gobernu Kanpoko Erakundeei, batez be Mongoliako Mercy Corps erakundeari. Dena dela, beste hainbat GKEk be laguntza jasotzen dabe. Modu horretan, Mongolia eta ibilbideko beste herrialdeetako biztanleei zerbitzuak eskaintzeko bideratzen dabe dirua; eskolak sortzeko edo nekazaritza sustatzeko, adibidez. Anto-

latzaileek ekonomikoki aurtan daukien helburua milioi bat libra lortzea da.

Mongol Rallyan parte hartzen daben taldeek 3.000 euroko laguntza emoten dabe, eta, horretaz gainera, lasterketarako erabili daben kotxea be donazino lez izten dabe Mongolian. Kotxea konpondu eta enkantean saltzen dabe, ekarpena handiagotuz.

Aurrekontu potoloa

Europa eta Asia zeharkatzen dituen lasterketa horretan parte hartzeko prestaketa handia egitea beharrezkoa da. 26 eta 27 urte arteko lau gazte honeek euren ametsa errealitate bihurtu gura dabe, baina horretarako aurrekontu potoloa derrigorrezkoa dabe. Egindako kalkuluen arabera, ia 18.000 euro beharko ditue euren asmoa posible izateko; horreetatik 12.000 euro helduko dira GKEen eskuetara, gitxi gorabehera. Aurrekontu hori lortzeko bidean, laguntzak eskatzeko fasean murgilduta dagoz Ermu-Ulan-Mallabia taldeko kideak.

Baldintza ekonomikoak ez dira bakarrik, baina, proba gogor horretan parte hartzeko exijitzen diren neurriak. Kotxeekin dabe 1.200 zk baino gehiagoko motorra izan, abantailak ekiditeko asmoz. Gainera, 10 urte baino gehiago daukien kotxeek ezin izango dabe Mongolian sartu, bertako gobernuaren aginduz. Bestalde, lasterketako beste irizpide bat zera da: ibilbide osoa laguntzarik barik burutu behar da. Hau da, bakotxa bere buruaren jabe da lehen kilometrotik hasita azkenekoraino, proba abentura itzela bilakatuz.

Kotxeak prestatuz

Mongol Rallyko antolatzaileek ezartzen ditueen neurri horreek ez ditue kotxe askok betetzen.

Bakotxak bere kabuz moldatu behar dau hasikeratik azkenekoraino

Baina Mallabia eta Ermuko lau gazteak hasiak dira dagoeneko euren autoen prestaketan. Denporarik galdu barik, jadanik eskuratu dabe kotxea: 1.100 zk-ko Peugeot 106 bat. 55 zaldiko potentzia urria dauka ibilgailu horrek, eta dena dela, probarako behar daben bigarren kotxea be estilo berekoa izatea gura dabe, ordezko pieza eta abarrak berberak izateko. Gauzak ahalik eta gehien erraztea da kontua. Esandako kotxe bi horreetan joan gura dabe euren ametsen bila Miguelek, Erikek, Josuk eta Unai.

Proba gogorra izango da, dudarik barik, Ermu-Ulan-Mallabia taldekoek aurrean izango dabena. Oraindino hilabete batzuk falta arren lehenengo kilometroak egiteko, ilusinoa soberan daukie eta gogotsu mintzatzzen dira lasterketaren inguruan. Madriletik irtengo dabe eta hiru asteren buruan Ulan Batorrera

Dagoeneko eskuratu dabe kotxe bat; bigarrena be estilo berekoa izatea gura dabe

Deskubritzeko makina bat kontu izango dabe Rallyan Mallabia eta Ermuko lau gazte honeek

heltzea dabe desio, tartean izan leikiezen arazoengainetik. Mugak zeharkatzea, kultura ezberdinak, kotxearen erresistentzia... Izan be, Mongol Rallya erresistentzia hutsa dela esan leiteke, eta ibilbidean laguntzarik izango ez dabela kontuan hartuta, oraindino eta gehiago.

Arrakasta handia

2001ean ospatu zen Mongol Rallyaren lehenengo edizioa, eta garai haretan lau talde bakarrik izan ziren abenturan murgiltzera ausartu zirenak. Aurtengo ediziorako, dagoeneko, 500 talde inguru izango dira irteerako marran, probaren arrakasta agerian itziz.

Europa eta Asiako kontinentek galdera eta zalantza askoren lurralde izango dira lasterketa benefiko honetako parte-hartzaileentzat; deskubritzeko makina bat kontu izango dabe bertan Mallabia eta Ermuko lau gazte honeek be. Orain, jenteak ezagutzeko ahaleginetan dabilz.

Laster izango dogu abenturahonen hurrengo atalaren barri.

■ Markel Onaindia

“Izaera benefikoagaz, bidai hau gure nahia asetzen dauen koktel bihurtzen da”



Erik del Rio



Josu Azpiri



Miguel Moyano



Unai Bergaretxe

Abentura honen zehaztasunak hurbiletik ezagutzeko, Miguel Moyano taldekideagaz batu gara. Ilusinoz eta gogotsu agertu jaku.

Zelan sortu zen proiektua?

Unai entzun eban lehenengoz irratiari. Ekaina zen, eta informatu ondoren, jakin genduen lekua erre-serbatzeko abuztua zela azken hilabetea. Gatxa izan arren, azkenean lortu genduen eta merezi izan ebalu uste dot.

Zer helburu daukazu?

Gure bizitzako esperientzia sakonetakoa bizitzea. Bidai honek munduaren heren baten errealitate hutsa ezagutzeko balio dau, baita abentura egarria betetzeko be. Gainera, horri guztiari izaera benefikoa emonda, gure nahia asetzen dauen koktel bihurtzen da.

Beste lasterketaren baten parte hartu dozue?

Ez. Ez gara inoiz lasterketetan egon. Nahia hor badago, baina behar den dirua be edukitzera ailegatzea gatxa da. Lasterketa honi dirugabeen Dakar Rallya deitzen deusie.

Hainbeste kilometro egiteko, motor kontuak gustuko izango dozuez, ezta? Bai, gogoko ditugu. Hor gabiltz apur-

ka-apurka, korrea desberdinak aldatuz, suspentsioa aldatuz be bai; kotxea ondo prestatuta egon behar da, eta geuk be kotxe hori ondo ezagutu behar dogu.

Kilometro asko izango dira...

Lehenengo egunetan Turkiaraino lo egiteko gelditu barik joatea pentsatzzen dogu, gero denpora gehiago edukitzeko baldintza eskasagoetan ibiltzeko. Bertako jenteagaz arratsalde bukaeran egoteak poztuko gaitu. Hemen baturiko arropa batzuk emon, eta eurek etxean lo egiten izten badeuskue, esperientziagaz jarraitzeko nahikoa indar izango dogula uste dogu.

Zenbat denporan egitea espero dozue?

Hiru astean. Josuk hilabete bateko oporrak ditu bakarrik, eta bidean zerbait pasatzen bajaku, egun batzuk koltxoi lez izango doguz.

Zuen artean hartu-emon ona izatea ezinbestekoa izango da horrelako proba baterako...

Proba honetan anai izan behar dogu, gure artean dena kontatuz arazoak konpontzeko. Hiru ermuarrak koadrila berekoak gara, eta Erik koadrilakoa balitz lez da. Beraz, ez dot uste arazorik izango denik alde horretatik behintzat.



Ulan Bator helmuga dauen lasterketak Europa eta Asia lotzen ditu

13.000 kilometro inguru, eta askori ezezagun egingo jakezen hainbat herrialde izango ditue aurretik Mongol Rallyko parte-hartzaileek

Ibilbide luzea egin beharko dabe lasterketan parte hartzen dabenek helmugara heltzeko. Hiru irteera puntu izango ditue euren abenturari hasiera emoteko: Madril, Londres eta Milan, hain zuzen be. Aurretik, 13.000 kilometro inguru eta askori ezezagun egingo jakezen hainbat herrialde.

ERMU-ULAN-MALLABIA taldekoek Madrilen sakatuko dabe lehenengo aldiz azeleragailua. Bertan, Pragarako bidea hartuko dabe, eta gainerako taldeekin batuko dira. Hortxe hasiko da benetako lasterketa. Guztiek izango dabe helburu berbera: Mongoliako Ulan Bator hirira ailegatzea.

Ermuko eta Mallabiko abenturazale honeen lehenengo jomuga Turkia izango da. Haraino, lo egiteko geratu barik iristea espero dabe, gero sortu leitekezen arazoetarako denpora irabazteko. Turkiara heltze-

ko, baina, Austria, Kroazia, Serbia eta Bulgaria zeharkatu beharko ditue lehenik. Hurrengo pausua Iran zapaltzea izango da, Mongoliarako bidearen erdialdean gitxi gorabehera. Hortik aurrera, Turkmenistan, Uzbekistan, Kazajstan, Kyrgistan eta Errusia igaroko ditue, Mongolian sartu baino lehenago.

Europa eta Asia lotzen dituen proba da Mongol Rallya. Herrialde andana zeharkatu ondoren, Mongolian sartu eta azken txanpan murgilduko dira parte-hartzaileak. Hiri-burura, Ulan Batorrera azken kilometroak erabakigarriak izango dira. Aitatzekoa da ibilbide osoan zehar gidariak ez dabela antolakuntzaren laguntzarik izango.

Aurreko edizioak kontuan hartuz gero, parte hartzen dabenek taldeen %70ek lortzen dau helmugara iristea. Aurten 500 talde baino gehiagok emon dabe izena.

ERITZIA[>]

Gutunak @

Ez al duzue ezer esateko?

Made in Euskadi: hori da Eusko Jaurlaritzak turismoa saltzeko asmatu duen marka berria. Made in Euskadi markaren barruan Guggenheim, Donostiako Kontxa, Arabar Errioxako ardoa, Gernikako piperrak, pintxoak, dantzariak, eta, orokorrean, Euskal Herriko ingurune bereizgarria saltzen ditu. Azken finean, zalan-tzarik gabe gure kultura da atzerrian bereizten gaituena: kultura fisikoa eta kultura etnikoa. Eusko Jaurlaritzak gu atzerrian saltzeko zenbait elementu erabiltzen ditu: ingurune naturalistiko izugarri polita dugula, kulturalki aberatsak garela... Eta horrela euren panfletoetan zera ageri zaigu: Abadiñoko Muntzarazko dorrea Anboto atzean duela, mendi magalean baserri eder piloa. Baina ez digu egia osoa erakusten. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak turismoarako saltzen duen Euskal Herri polit hori suntsitu egin nahi du. Hori da egia. Abiadura Handiko Trena eraikiko balute eragingo luketen kalteaz ari naiz: AHTa eraikiko balute Muntzarazko dorrearen atzean ez litzateke Anboto ikusiko; ingurune suntsitu bat ageriko litzateke.

Euskal Herria bere hizkuntzak, euskarak eta bere kulturak egiten dute bereizgarri, eta inork ezin du zalantzan jarri baserriak kultura horren elementu direnik. Hemen hurbilean, Durangaldean, oraingoz baserri bat botatzea aurreikusi dute AHTa eraikitzeko: Mendilibar Erdikoa baserria. Baserri horrek berezia egiten duten ezaugarriak ditu: adobeazko adreilu bereizgarriak, 350 urte... Hala ere, Mendilibar Erdikoa baserria ez da suntsituko duten ondare bakarra, bertatik metro eskas batzuetara Abadiñon hain ezaguna den galtzada erromanikoa dago, Mendiola auzotik Abadiñoko erdigunera doana. Eusko Jaurlaritzaren legediaren arabera, ukaezina da bi elementu hauek Euskal Herriaren ondare kulturala osatzen dutela. Kultur ondare hau babesteko ardura guztiona da, baina bereziki erakunde eta administrazio publikoena.

Alde batetik, herriko Udala dugu: Udalek bere herriko ondare publikoa babesteko betebeharra dute, are gehiago ondarea historiko-kulturala denean. Bestetik, Eusko Jaurlaritzak gure kultur ondasuna babestu eta berreskuratzeko betebeharra du. Baina orain arte Eusko Jaurlaritzaren kultura sailburuak ez du gai horren inguruan inongo adierazpenik egin.

Hala ere, guztiok dugu gogoan orain dela aste pare bat Euskadi eta Euskal Herria izenen artean sorturiko eztabaida. Orduan, kultura sailburuak, Euskadi izen historikoa zela eta horrela izaten jarraitu behar zuela esan zuen. Mendilibar Erdikoa baserriaren historia, azken horrek 350 urte baino gehiago dituenean, 'Euzkadi' hitzarena baino lehenagokoa da, historikoa da. Ez al dute galtzada erromanikoa eta Mendilibar Erdikoa baserriak garrantzia nahikorik kultura sailburuak defendatu eta babesteko? Miren Azkarate anderea, argi utzi duzu Euskal Herriko kultur ondarea zure eskuetan oso arrisku larrian dagoela, desagertzearainoko arriskuan.

Badaude kultur ondarea babesteko erantzukizuna duten beste elkarte batzuk: adibidez, Gerediaga Elkartea. Beraien webgunean azaltzen denez: "Bere sorreratik jarrera berezi bat adierazi du gure eskualdeko kultur ondarearen alde, eta hainbat eta hainbat bider aldarrikatu beharra izan ditugu instituzioen aurrean, komunikabideetan eta abar gure ondarearen etorkizunari buruzko gure kezka". Elkarte horrek ez du AHTaren sarraskien inguruan ezer esan, ezta egin ere. Zeri itxaroten daude? Hemendik, guztiok bulztatu nahi zaituztet administrazio eta elkartei erantzukizuna eskatzeko, gure kultur ondarea suntsitu ez dezaten eta babestu dezaten eskatzeko, eta, azkenik, AHTaren kontra egiteko. Guztion artean lortu dezakegulako, esan ezetza AHTari.

Gorka Erdoiza (Durango)

Bilgune Feministari bi hitz

Bilgune Feministak Maite Areitioaurtenari erantzunez bidalitako gutuna irakurri ondoren, ez nagoke ohartxo bat egin gabe, nahiz eta esparru honetan nire autoritatea, besteetan bezala, hutsa izan. Herritar gizonezko arrunt bezala mintzatuko naiz, beraz.

Eztabaida honetan nik sumatzen dudana ez da borroka bat bere bide zuzenetik aurreratu eta gizarteratzeko borondate zentzuzkoa, baizik eta bazterrak astindu eta irabiatzeko grina itxuragabea. Horren frogar, baditugu zenbait elementu. Lehen, dudarik gabe, Gerediagak aukeratu kartelari egindako kritikak. Gizarte honetan emakumeak dituen arazo eta etsai mordoa alboraturik, Bilguneak aukeratu du bere adarra nori eta Gerediaga bezalako elkar-te kulturale, demokratiko, langile eta afable bati sartzea, mila eratarira irakur daitekeen kartel bat aitzakiatzat harturik. Gerediagako zuzendaria emakume bat izateak eman beharko ziekeen, behar-bada, zer pentsatua salatzaileei. Bilguneak bezala, nik ere uste dut "jendartean eztabaida piztu duen kartela ez dela huskeria bat", baina nik beste motibo batzuegatik daukat uste hori: Lehenengo eta behin, eztabaida ez delako "jendartean sortu", Bilguneak gaizki dioen bezala, baizik eta norbaitek duelako "jendartean sortarazi"; eta bigarrenik, salaketa horrek min handia egin diezaiokeelako halakorik hartzea merezi ez duen elkar-te eredu garri bati.

Erantzun-gutunean Bilguneak aipatzen dituen zenbait gauza kasik iraingarriak dira. Hauxe aurpegiratzen diote Gerediagari: "Aurtengo nobedadeen % 22 bakarrik dira emakumeek egindako ekoizpenak". Gerediagak aukeratzen al du inolako modutan Azokarantzen diren lanak? Errealitatea Bilguneak dioen hori bada, emakumeen gain dago, botere publikoek eskubide-berdintasun printzipioa bermaturik eta gizarte honetan egin beharreko aldaketa estruktural guztiak mediante, egiletza portzentaian euren burua goratzea. Gerediagak, nolana ere, ez dauka tutik ikustekorik langintza horretan.

Beste ale bat ere botatzen dute latza: "Gizonek idatzitako literatura 'unibersaltzat' hartzen den bitartean, emakumeek idatzitakoa 'literatura femeninoa' kontsideratzen da". Horren arabera, Virginia Woolf, Brontë ahizpak, Mary Shelley, Simone de Beauvoir edo Arantxa Urretabizkaia ez lirateke izango "literatura unibertsala" baizik eta "literatura femeninoa". Baina, berriz ere, zer ikustekorik ote du Gerediagak bereizkeria horrekin, egiazkoa balitz ere? Gerediagaren esparrua hori baino mugatuagoa da, eta bere jardueraren mugen barruan Gerediagak sekula ez die ukatu emakume idazleei euren ekarpenaren arabera abegia. Galdetu Toti Martinez de Lezeari, Jasone Osorori eta beste hainbati.

Bilguneko lagunok, haize-erroten parabola kixoteskoa aipatzera behartzen nauzue. Ikusten dituzuen munstroak errota umilak dira, ez dute minik egiten. Zuen arerioa —eta gurea— beste toki batzuetan dago. Zuen haginkadak okerreko etsaiari zuzenduz ez duzue besterik lortuko zeuen hortzak hautsi eta orain arte adiskide izan dituzuen askorenak irtenaraztea baino.

Jakina!, baita zeuen buruarentzat minutu bateko ospea segurtatu ere hedabide albistegose batzuetan.

Aitor Egia (Abadiño)

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

kolaborazinoa



Carlos Iglesias

Beruna urtzen

Egun batzuk dira burua "beruna baino astunago" sentitzen dudala. Hotza, beherapenak edo krisia izan daitezke nire egoeraren arrazoi. Urte bat joan zaigu eta hurrengo antzera samar hasi dugu: borroka hutsean. Azkenengo biolentzia kasu bortitzena Gazako franjan gertatu da. Israellek eta Hamasek borrokan jarraitzen dute.

Orain arte esandakoa ez da gaur goizean sortutako arazoa, eta komunikabideetan ia egunero horren inguruko informazioa jasotzera "ohitu" gara. Israelgo gobernuak abian jarritako 'Berun urtua' operazioak 700 hildako eta milaka zauritu eragin ditu Gazan.

Astekari honek eskaintzen duen txoko xume hau aprobe-txatu nahiko nuke inguru hartan gertatzen ari den sarraskia salatzen, eta gatazka horretan zeresana eta zeregina dutenei zentzudunak izan daitezkeen eskatzeko.

Zenbat hildako behar dira "nahikoa da" esateko? Nazioarteak zergatik ez du neurririk hartzen? Inguru horretan zer interes ezkutu daukate? Zein da arazo horren erroa? Minimoetara heltzeko oinarriak ezartzeko zergatik ez dira elkartzen? Zergatik daukate Israelenganako jarrera permisibo hori?

Behingoagatik bada ere, denen artean konpromisoak hartzea beharrezkoa da neurrigabeko biolentzia honi amaiera emateko. Alde bateko zein bestekoen hildakoen artean bereizketarik egin nahi ez arren, bonbardaketan hondakinen artetik umeak ateratzen ikusteak zer pentsatua ematen du. Halakoetan inpotentzia sentsazioa barru-barruraino heltzen da, eta zaila da beste zerbaitean pentsatzea. Eskerrak, gurean ere arazorik falta ez zaigun arren, beherapenak hasi direla gai arinagoetan pentsatuz aurrera egin ahal izateko. Urte berri on!



Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
 diruz lagundutakoa



anboto
 durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkartea
 2009ko urtarrilaren 9a - 8. urtea - 313 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Maria Gonzalez., Itsaso Esteban, Markel Onandia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit Fernandez eta Kepa Aginako.

Gremioen gida

Altzarien Zaharberritzea

Txingoka Zaharbarrikuntza

«Sitsaren tratamendua»

Altzariak eta zurezko osagai arkitektonikoak zaharberritzen ditugu

Tel.: 659 746 499 • Zornotza

Elektrizitatea

Electricidad DURANGO, S.Coop.



MUNTAIA ETA
INSTALAKUNTZA

ARGITERIA

MANTENIMENDUA

Arañondo-torre, 6 DURANGO

Tel.: 94 681 87 38 - Faxa: 94 603 25 26

Elektronika

URBASA Elektronikak

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SODIA - BIDEOKA - IRRATIA
KOMINIKAZIOA - ANTENA KOLIKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAS

Askatasun Etorbidea, 13
Tel.: 94 681 33 03
Durango

Panasonic



Iturgintza



Klimatizazioa

Kalefazioa

Iturgintza

Gasa

Arandi, 16 - beheko 3. aldea
Sakelekoa: 607 24 58 54
Faxa: 94 681 61 56
Iurreta

Baimendun
instalazioak

Argiztapena

ARGIZTAPEN TEKNIKAK

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, beheko
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



Gas

CIAL-UME

gas likidoen banaketa-etxea, s.l.

GAS INSTALAZIOAK
ETXE OFIZIALA

INSTALAZIOAK ETA ALDIZKAKO BERRIKUSTEAK

Iurreta, 7 - IURRETA Komentu kalea, 2-A - DURANGO
Tel.: 94 681 0877 Tel.: 94 681 02 50

Mallabiena

M.Z.O ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com



Lorazaintza



Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldun barik

Sanikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 083

Eraikuntza



ERAIKUNTZA
IGELTSERITZA

Baserriak eta etxebizitzak
berrizatu eta zaharberritzea

Zurezko egiturak

Barrualdea diseinatzea

Teilatu, fatxada, bainugelak, etab.

Artiso Esteguz etorb. 11 - 3.8
DURANGO

Sakelekoa: 615 77 91 70
605 77 03 57



gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN OINTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGIOA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA



Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

Barne Dekorazioa

a-metz
[barne]diseinua

Tel.: 600 267 373

studio
[www.a-metz.com]

Ibalzabal auzunea 3 A, beheko • Durango

HEMEN AGERTU

GURA BADOZU
DEITU

94 621 79 02

AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Urtarrilaren 10ean, 20:00etan

KRONIKA POLITIKO ETA SENTIMENTALA

Familia baten gorabeherak hari hartuta, XX. mende amaierako eta XXI. hasierako Espainiaren kronika sentimental eta politikoa izan gura dauen obra dakargu Madrilgo (I)taca Teatrok: 'Kampillo o El Corazón de las piedras'. Une eta leku jakin batean bizitzea egokitu jakon jendartearen istorioa da, bizitzaren itzulinguruak direla-eta bere burua eta printzipioak zalantzan jarriko jakozen jendearena.

ANTZERKIA

BERRIZ

» 'Nora zoaz Txanogorritxu' (Deabru Beltzak), urtarrilaren 9an, 17:30ean, Kultur Etxean.

DURANGO

» 'Kampillo o El corazón de las piedras' (Madrilgo (I)taca Teatro), urtarrilaren 10ean, 20:00etan, San Agustin kulturgunean.

ZORNOTZA

» 'Terapia?' (Markeliñe), urtarrilaren 9an, 21:00etan, Zornotza



Aretoan. Zornotzako Aretoko XV. urteurrenagaz bat eginda.

BESTEAK

BERRIZ

» 'Berrizko Munarriak' ibilbidea, urtarrilaren 10ean, 08:30ean, Tren Geltoki plazatik urtenda. Berriz-Ere elkarteak eratuta.

DURANGO

» Patinatzeko izotz-pista, urtarrilaren 11 arte, Landako Gunean, 10:30etik 13:30era eta



17:00etatik 20:30era. Gaur, 17:00etatik 19:00etara eta 21:30etik 00:30era izango da zabalik. Ikastaroak be eskainiko ditue, hilaren 10 eta 11n 13:30etik 16:30era, adinkako taldeetan.

DEIAK

DURANGO

» Genero biolentziaren kontrako elkarretaratzea. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feministak eta Andereak elkarteak deituta.

» Bost eurogaz saritutako + Dendak elkarteko establezimenduetan banatutako Gabonetako loteriatan 68.258 zenbakiaren 19.600 partizipazioak kobratzeko, urtarrilaren 12tik aurrera dago aukera, Nafarroako Aurrezki Kutxaren sukurtsalean.

» Txiki Parka zabalduko dabe, urtarrilaren 10ean, Landako erakustazokan. Hainbat jostailuz hornitutako espazio egokitua 3. moduluan, 17:00etatik 20:00etara. Urtarril, otsail eta martxoko asteburuetan zabalduko dau Txiki Parka Udaleko Kultura Sailak.

OTXANDIO

» Sahararen Aldeko V. Euskal Karabana. Janari eta higie gaien bilketa Tindufen bizi diren saharar errefuxiatuei bidaltzeko. Udaletxeko atarteko kutxatan egingo da bilketa, urtarrilaren 15a bitartean.



ERAKUSKETA

BERRIZ

» 'Basoak klima aldaketaren aurrean'. Basoko injineru teknikoek elkarteak. Kultur Etxean.

DURANGO

» Geroa antzerki taldeari omenaldi erakusketa. Urtarrilaren 10etik otsailaren 7a bitartean, San Agustin kulturgunean. Eguenero, 18:00etatik 20:00etara.



» Bateginez Gobernu Kanpoko Erakundeak Guatemalako San Miguel Pochuta herrian burututako proiektuak. XV. urteurrena ospatzeko eratu da eta Nafarroako Aurrezki Kutxako sukurtsalean ikusi leiteke, urtarrilaren 15a bitartean.

» 'La aventura con el otro. Besta-ekin abentura'. Leo Simoesen zuri beltzeko argazkiak. Urtarrilaren 10etik otsailaren 1a bitartean, Arte eta Historia Museoa.

ERMUA

» Margoak. Udal Margo Eskolako ikasleen lanak. Urtarrilaren 16a arte, Lobiano kulturgunean.

ZORNOTZA

» 'Muros de la vergüenza'. Sonia Ruedaren argazkiak. Urtarrilaren 31a bitartean, Zelaieta zentroan.

IKASTAROAK

BERRIZ

» 'Ikasteko ohitura eta teknikak'.

Gurasoei zuzendutako tailerra, urtarrilak 15ean, 18:00etan, Institutuan.

DURANGO

» Dendaketan Merkatarientzako euskara ikastaroak. Hainbat mailako taldeak osatuko ditue, bai zerotik bai maila batez hasi gura dabenei zuzenduta. Udaleko Euskara Sailak eraturako ikastaroak dira. Izena emoteko epea, barriz, zabalik dago dagoeneko, eta otsailaren 6a bitartean egongo da horretarako aukera (94 603 00 16 / gukeuskaraz@durango-udala.net).

» Artea eta Historia ezagutzeko ikastaroak: 'Artea ezagutzeko ikastaroa II: Errealitatea sortzailen begietan'. Urtarrilaren 12an hasita, Arte eta Historia Museoa. 'Munduaren Historia labur bat'. hilaren 13an hasita, eta, 'Erligioen Historia', 14tik aurrera.

ELORRIO

» 'Emakumea eta generoa' ikastaroa, otsailaren 17a arte, martitzenero egingo dira saioak, 15:30etik 17:30era. Emakumearen Sustapenerako Bizkaiko Fundazioaren eskutik, Iturri kultur etxean. Izena emotea: 5 euro. Elorri-Lore andren elkarteak eraturako ikastaroa da.

IKUS-ENTZUN

ELORRIO

» 'Hilean behin.doc': 'The english surgeon' DVDa (V.O.S.E.), urtarrilaren 15ean, 19:30ean, Iturri kultur etxeko areto nagusian. Udaleko Kultura Sailak eraturak.

BERRIZKO UDALA



URTARRILA

Urtarrilak 9
Umeen antzerkia: "Nora zoaz txanogorritxu". Kultur Etxea. 17:30.

Urtarrilak 15
Gurasoentzat tailerra: "Ikasturte hasiera: nola lagundu seme-alabei?". Institutua. 18:00.

Urtarrilak 23
Antzerkia: "Maldito parne". Kultur Etxea. 22:00.

Urtarrilak 30
Umeen antzerkia: "Kartoi biraka". Kultur Etxea. 17:30

Erakusketa
"Basoak klima aldaketaren aurrean". Basoko injineru teknikoek alkartearen eskutik. Kultur Etxean.

Jaiak-Antonio Deuna (16-26)

Urtarrilak 16
• Sagardo ibiltaria jaiak hasteko, 19:30ean.

Urtarrilak 17
• Pilota txapelketako finalak, 19:00etan.

Urtarrilak 18
• BTT Martxa, 10:00etan.
• Ume antzerkia: "Ino, Ino, Ino, badator Bonbardino", 12:00etan.
• "Internet Kafe", Mikel Urdangarin eta Kirmen Uribe, 19:00etan.

Urtarrilak 19
• Barrakak doan

Urtarrilak 25
• Nekazaritza eta Artisautza Azoka

Urtarrilak 26
• Herri kirol jaialdia: harrijasotzailetak eta trontzalariak, 19:00etan.

Nahiarentzako

*Negu ilunean aterpe,
gure besarkadaren
epela sentitu daizun
gura dogu.*



Berbaroko Zuzendaritza Batzordeak eta langileok

JAIAK

BERRIZ

San Antonio

» **Sagardotegi ibiltaria**, urtarrilaren 16an, 19:30ean, Olakueta plazan. Urtarrilaren 26a arte luzatuko diren jaiak abiatuko ditue holan.



LEHIAKETAK

ERMUA

» **2009ko ihauteriak iragartzeko kartel lehiaketa jarri dabe martxan.** Lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 5a da, Udaleko Kultura Saileko bulegoan. Sari bakarra emongo dabe: 450 euro.

IURRETA

» **Iurretako VI. Literatur Lehiaketa.** Sail bitan banatuko dabe, adinaren arabeko taldeak osatuz: ipuinak eta bertso-paperak. Lanak urtarrilaren 29a bitartean aurkeztu leitekez, 12:00ak arte, Herri Bibliotekan. Lan sarituak liburutxo baten argitaratuko ditue, eta umeen sailean parte-hartzaile guztiendako diploma emongo dabe. Sariak: haur eta gazteek bono batean jasoko ditue (liburuengaitik trukatzeko), eta, helduek, dirutan.

LITERATURA

IURRETA

» **Emakumeen Literatur tailerraren aurkezpena.** Urtarrilaren 12an, 18:30ean, Herri Bibliotekan.

» **Haurren irakurketa kluba**, urtarrilaren 13an, Herri Bibliotekan: Durango-Durango, (8-10 urte bitarteko umeendako), 16:45ean. Ondoren, 17:45ean, Lesterren logika (10-12 urte bitarteko gaztetxoendako).

MUSIKA

DURANGO

» **Vetusta Morla + Dinero**, urtarrilaren 9an, 22:00etan, Plateruena kafe antzokian.

» **Estampida + Tise To Fall + No Drama**, urtarrilaren 10ean, 22:00etan, Plateruenean.

» **Abesbatzen kontzertua: Bogoroditsie abesbatza + Bartolome Ertzilla abesbatza +**



Urtarrilaren 9an, 22:00etan

VETUSTA MORLA + DINERO

‘Un dia en el mundo’ lanagaz jatorku Vetusta Morla, gaur, Plateruena kafe antzokira. Bederatzi urtean batutako musika jardueraren laburpena da estreinaldiko LP hori; lan horren ondorioa. Bertan zuzenekoaren “argizko energia” hori islatzen saiatu dira, soinu naturalagaz; “apenas produkzino trikimailu eta su artifizial barik”. Oholtza berean izango doguz Dinero musika taldeko kideak be.

ZORNOTZA

» **Jazz-blues zirkuitua: Amar Sundy.** Urtarrilaren 15ean, 20:00etan, Zelaieta zentroan.

SOLASALDIA

DURANGO

» **‘Politika egiteagaitik epailearen aurrean’ mahai-ingurua**, urtarrilaren 15ean, 19:30ean, Plateruenean. Hizlariak: Jone Goirizelaia, Nekane Arzelai eta Elizabete Piñol. Ahotsak ekimenaren bitartez antolatu dabe.

ZINE-KLUBA

DURANGO

» **Uztartuz elkartearen eskutik zine**

emonaldia: ‘La boda de Tuya’ filma, urtarrilaren 16an eskainiko dabe, 19:30ean, San Agustin kulturgunean.



ERMUA

» **Umeendako zinema: ‘Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal’ pelikula**, urtarrilaren 11n, 17:00etan, Lobiano ulturgunean.

» **Euskal Herriko zuzendari barrien zikloa: ‘Los cronocrímenes’ pelikula (Nacho Vigalondo)**, urtarrilaren 15ean, 21:30ean, Lobiano kulturgunean.

ZORNOTZA

» **‘Con duende’ zikloa: ‘Aliento’ pelikula**, urtarrilaren 13an, 20:15ean, Zornotza Aretoan.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Resistencia
Zuzendaria: Edward Zwick
barikua 9: 19:00 / 22:00
zapateria 10: 19:30 / 22:30
domeka 11: 19:30 / 22:30
astelehena 12: 19:00 / 22:00
martitzena 13: 20:00



Umeendako zinema

El reino de los chiflados
zapateria 10: 17:00
domeka 11: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia

La Ola
Zuzendaria: Dennis Gansel
zapateria 10: 22:30
domeka 11: 20:00
astelehena 12: 20:00



Umeendako zinema

Una amistad inolvidable
domeka 11: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

Gomorra
Zuzendaria: Matteo Garrone
zapateria 10: 22:00
domeka 11: 20:00
astelehena 12: 20:00



Umeendako zinema

Bolt
domeka 11: 17:30

BOTIKAK

Barikua, 9
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
09:00-22:00
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
Zapateria, 10
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Campillo / San Roma / Sagastizabal / Balenziaga / Unamunzaga / De Diego (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)*
Domeka, 11
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
Astelehena, 12
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
Martitzena, 13
09:00-09:00
• Unamunzaga (Murrueta Torre 2C - Durango)
Eguaztena, 14
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
09:00-22:00
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
Eguena, 15
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112

GARRAIOAK

Euskotren.....902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466

TAXIAK

Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte ..670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565

UDALAK

Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOA

Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88

BESTELAKOAK

Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

4º BARIKUA

Haizeak hego-ekialdera egingo dau eta giroa epelduz joango da. Hodeiak sartu eta euri arina egingo dau. Goizean elur-kota 200-300 m inguruan kokatuko da, egunaren amaieran 700 m-tan kokatuz. Izotza nonahi botako dau berriro.

7º ZAPATUA

Eguraldiak hobera egingo dau. Goizean lainotuta egongo da eta euria egin leike. Arratsaldetik aurrera ostarte handiak zabalduko dira. Elur-kota goizean 700-800 m inguruan kokatuko da.

11º DOMEKA

10º ASTELEHENA

11º MARTITZENA



Durangaldeko usaina ezin
deutsugu transmititu,
baina Durangaldea
entzun, ukitu eta ikusteko...

anboto
komunikabideak



KIROLAK >



Kepa Aginako

Inor baino gorago

Anbotopeko eta Zaldua-Julza saskibalo taldeak sekulako liga osatzen ari dira Lehen Erregionalean. Maila multzo bitan banatuta dago, eta Durangoko eta Zaldibarko taldeak lider garbiak dira, bakoitza bere multzoan. Biek hamarna partidu irabazi dituzte eta bakararra galdu dute. Asteburuan, ordea, euren tronua kolokan izan daiteke. Izan ere, liderren arrastoa galdu barik dabilzan bigarren sailkatuen kontra jokatuko dute.

Anbotopekok galdu duen partidu bakararra Gabonen aurreko azkena izan zen, Leioaren kontrakoa. Bihar Centro Salmantino-ren aurka jokatuko dute etxean. Barakaldarrak Anbotopekoren erritmoari eutsi dieten bakarrak dira: bederatzi garaipen eta porrot bi dituzte. Durangarrak oso indartsuak dira taula azpian,

baina Xabier Zarraga pibotak ezingo du jokatu eta, ondorioz, hegalekoek gogor lan egin beharko dute barruan.

Anbotopekok aurtengoa laugarren urtea du Lehen Erregionalean. Lehen bietan txapeldunorde izan ondoren, iaz azken aurreko amaitu zuten. "Iaz arte, beti goian genbiltzanez, irabazi beharraren zamarekin kantxaritzen ginen. Aurten gauzak lasaigo hartu ditugu eta horrek modu positiboan eragin digu", dio Fran Costana jokalaria.

Talde indartua

Zaldua-Julzak lidertza etxetik kanpora defendatuko du; Seston, hain zuzen er, Marrazoak taldearen aurka. Zalduek galduko balu, bi taldeak berdintuta gertuko lirateke. Nolanahi ere,

Anbotopeko lege, Zaldua ia klasifikatuta dago igoera faserako.

Iazko taldearekin alderatuta, zaldibartarrek hiru jokalaria berri dituzte: Iker Martin, Roberto Onandia "Txino" eta Iker Totorika. Lehendik ere kamutsa ez zen taldea asko indartu dute. "Iaz baino hobeto bai, baina hain ondo ibiltzerik ere ez genuen espero", dio Jon Vazquez jokalaria.

Zalduek hamar urte daramatza maila horretan, eta behin hirugarren sailkatu zen. ■ J.D.

Anbotopekok eta Zalduek lidertza defendatuko dute asteburuan

bbk=

atera gorria!



www.bbk.es

BBK26=

abantaila eta deskontu pila

Elorriok hiru puntuak bakarrik ditu buruan

Hurrengo partidu bietan golik jaso ezik, Espainiako marka hautsi-ko dute; hala ere, taldeak garaipenari ematen dio lehentasuna



Arrakasta taldearen indarrean oinarritzen dela dio Angel Diez entrenatzaileak. Kepa Aginako

1991n Abel Resinos Atletico Madrileko atezainak 1.275 minutuan jarraian hutsean mantendu zuen bere atea; 14 partidu oso eta 15.eko 15 minutu. Marka handi hori Elorriok hautsi dezake. 12 partidu daramatza golik jaso gabe. Partidu bi falta zaizkio marka esku-eskura izateko. Hala ere, bai jokalariek bai Angel Diez entrenatzaileak argi dute bihar Ezkurdiren kontra jokatuko duten derbian zer den behinena: kosta ahala kosta, golik jaso gabe zein jasota, hiru puntuak batzea.

“Errekorrak lortzea beti da polita, baina gure helburu nagusia mailaz igotzea da, eta, horretarako, puntuak batu behar dira. Beraz, biharko partiduari begira hiru puntuak batzeko egingo dugu lana”, dio Angel Diez entrenatzaileak.

Diezek 14 jokalaria bakarrik ditu derbia jokatzeko moduan

“Talde lanean dago sekretua. Bloke konprometitua eta indartsua egin dugu”

Elorriok orain arteko partidu guztiak irabazi ditu. Abadiñorekin batera, multzoko talderik golegileena ere bada, 36 golekin. Hala ere, defentsako lana da mundu guztia txundituta daukana. Diezen ustez, talde osoaren meritua da, ez atzeko lerroarena eta atezainarena bakarrik: “Aurrelariak dira lehenengoak defenditzen. Talde lanean dago sekretua. Bloke indartsua eta konprometitua lortu dugu”.

Biharko derbiari begira zazpi baja dituzte. Beraz, 14 jokalaria bakarrik daude jokatzeko moduan. Gainera, Ezkurdi ez da arratsalde pasa joango. Iaz, esaterako, durangarrek irabazi zuten derbia: 2-0. Gainera, datorren urtean Hirugarren Erregionala sortuko denez, puntuak inoiz baino inportanteagoak dira. ■ J.D.

Perez jaun eta jabe Zaldibarren

Zaldibarko XXI. Olazar Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren Gabon Zaharretan. Lau t'erdian Ibai Perez sestaoarrak ez zion aukerarik eman Jon Landaburu elorriarrari (22-0). Zer kontatu handirik gabeko partidua izan zen. Egunotan Perez Elite Mailako Txapelketa jokatzen ari da eta gaur Sopelan finalerako pasea jokoan du Renobalesen aurka.

Binakakoan Mendizabal eta Jauregik irabazi zuten, Gorka eta Larrinagaren aurka (22-19). Gipuzkoarrek merezita jantzi zuten txapela.

Durangaldeko pilota finalak gaur eta bihar

Gaur eta bihar Durangaldeko XXV. Pilota Txapelketako finalak jokatuko dira Durangoko Ezkurdi Jai-Alai frontoian. Binaka, sei mailatan jokatuko dira finalak.

Gaur, 19:30etatik aurrera hiru partidu jokatuko dira. Kadeteetan Lekeitio eta Markina lehiatuko dira. Jarraian, gazte mailan, Markina eta Abadiño izango dira aurrez aurre. Azkenik, nagusien mailako finalean Durango eta Abadiño neurtuko dira. Bihar gazteen mailako finalak jokatuko dira, 17:00etan

hasita. Umetxoetan Ermua eta Elorrioren artean dago txapela. Umeetan Markinak Mallabiaren aurka jokatuko du. Azkenik, gaztetxoetan, lurreta eta Markina lehiatuko dira. Ondoren, sari banaketa izango da.

Aurten 25. aldia du Durangaldeko pilota txapelketak

Agustin Alkorta
• Futbol entrenatzailea



3. Erregionala behar da?

Hurrengo denboraldiari begira, Bizkaiko Futbol Federakuntzak (BFF) beste maila bat martxan jartzea erabaki dau; hau da, 3. Erregionala. Maila barri hori osatuko daben taldeak izango dira, batetik, denboraldi amaieran 2. Erregionaleko multzo bakotzeko 7. postuetatik atzera geratzen diren talde guztiak, eta, bestetik, sortuko diren talde berriak.

Albiste horrek kontrako eritzi asko jaso dau, eta neu be bide horretatik noa. Nire eritzia azalduko deusuet, hiru puntutan:

- Eskailera gehituz, talde eta jokalarien motibazioa galtzen da. Sei maila dagoz 3. Erregionalatik 3. Mailaraino, lurralde txiki bat izateko. Oztopoa besterik ez da kirolarien aspirazioetarako, euren helburua igotzea bada.
- Talde barri horreen kontrakoa naz. Gitxik edukitzen dabe jarraipena, eta, normalean, koadrilek osatuta dagoz. Beraz, seriotasun eta etorkizun gitxiko taldeak dira.

- Gure inguruko taldeek, kapitaleko taldeekin alderatuta, nabarmen kaltetuta urtetan dabe.

Nire ustez, BFFren erabakiek futbolarien ilusinoa mantentzeko eta gehitzeko izan behar dabe, eta, datorren urtera begira hartutakoa zentzurik gabekoa da.

Nire proposamena da konpetizino alternatibo biren ikerketa egitea: Filialen Liga eta Bizkaiko Kopa. Seguru nago ilusino handiagoa sortuko leukiela.

Sasikoa lidertzaren bila doa, liderraren etxera



Etetik kanpora sei partidutik lau irabazi dituzte. K. Aginako

Sasikoak Ancla Dosanpor liderraren etxean jokatuko du bihar. Sasikoa bigarren dago sailkapenean sestaoarrendandik puntu bira. Beraz, irabaziz gero, Ohorezko B Mailako lider jarriko dira

Puntu biko aldea dago Sasikoa eta Ancla Dosanpor taldeen artean

durangarrak. Partidu zaila izango dela esan beharrik ere ez dago. Ancla Dosanporrek partidu bakarra galdu du orain arte; bere etxean, Bilboko Iturriondo de Zurbaranberri taldearen aurka. Sasikoak ere porrot bakarra jaso du, hain zuzen ere, sestaoarren borroka izandako talde beraren kontra. Maila honetan lehenengo postuak berebiziko garrantzia du, liderra bakarrik igoko delako Ohorezko A Mailara.

Bestalde, Elorrioko Buskantzak Jarrillerosen aurka jokatuko du, etzi, etxean.

Orain arte nabaritu dena finkatu nahi du Kulturalak bigarren itzulian

Somatzen da Kulturalak jokoa, izan, badue-
la. Pare bat emaitza on behar ditu definitibo-
ki gora begira jartzeko. Horretarako, Ordizia
azken sailkatuaren zelaia tuki egokia dirudi.

lazio urte latza kontuan hartuta, ez dago esaterik Kulturala denboraldi kaskarra osatzen ari denik. Liga hasi aurretik batek baino gehiagok sinatuko zuten denboraldi lasai bat. Hala ere, Kulturalak gorago egon daiteke-
ela erakutsi du partidu batzuetan. Liga hasieran taldeak zer eman dezakeen erakutsi zuen. Gerora partidu onak eta txarrak tartekatatu ditu. Horregatik dago sailkapenaren erdian; ez gora ez behera. Beraz, bigarren itzulari begira, taldeari nabari zaion kalitatea zelaian erregulartasunez erakustea izango dute helburu.

Ordizia errekuaratuta
Bihar Ordiziaren zelaian jokatu-
dute. Gipuzkoarrak sailkapeneko
azkenak dira; salbazioa zazpi
puntura dute. Hala ere, tentu
handiz jokatu beharreko partidua
da. Estu dabilta, oso zail dute
salbazioa, baina azken partidura
arte borrokatzeko prest daude.
Horixe erakutsi dute azkenengo
lau neurketetan; horietako bi ir-
bazi dituzte eta beste bat berdin-
du. Gainera, garaipenetako bat
zazpigarren sailkatutako Beasai-

nen kontra lortu dute. Erakutsi
dute despistatuei disgustuak
emateko kapaz direla.
Kulturala, berriz, ez dago
denboraldiko joko boladatik one-
nean emaitzek erakusten dute-
nez. Azken bost partiduetan ez
dute garaipenik ezagutu: hiru
berdinketa eta porrot bi. Joan
zen asteburuan Amurion galdu
izana normalizat jo daiteke, baina
gainerako lau taldeak duranga-
rren atzetik daude; Santurtzi,
Eibar, Zarautz eta Baskonia.
Bihar dute lehenengo aukera
joera negatiboa hausteko. ■ J.D.

Kulturalak ez du irabazi azken bost lehiatan: bi porrot eta hiru berdinketa

Ordizia behetik gora doa, nahiz eta salbazioa zail duten



Garaipenarekin hasi nahi du urtea Kulturalak. Judit Fernandez

Egoitz Murgotio bikain dabil ziklo-krossean

Egoitz Murgotio abadiñarrak ezin hobeto hasi du 2009. urtea. Urtarrilaren 3an Elorrioren izandako lasterketan Bizkaiko txapeldun geratu zen. Lasterketa bera, bigarren amaitu zuen Javier Ruiz

Bizkaiko txapeldun izan da oraintsu 25 urteko abadiñarra

de Larrinagarengandik bost segundora. Martitzenean, aldiz, Errege Egunean Ispazterren jokaturako proban berriz ere goi mailan ibili eta bigarren geratu zen abadiñarra. Isaac Suarez kantabiarra bakarrik helmugaratu zen bere aurretik. Bestalde, astelehenean talde berria aurkeztu zuen Murgotio. Hirument taldeko kidea izango da aurtengo denboraldian.

Abadiño prest Xakeko Euskal Ligari ekiteko

Asteburu honetan hasiko da Euskal Liga, bai Ohorezko Mailan eta bai Lehen Mailan. Azken horretan Abadiñoko Xake Taldeak jokatu du. Abadiñarrek iaz maila galdu zuten, Easo eta Arlutekin batera.
Hain zuzen ere, Easoren kontra jokatu dute lehen jardunaldian etxetik kanpora. Hilaren 17an Zarautz jasoko dute etxean. Guztira bederatzi lehia izango

Bederatzi neurketa jokatu dituzte martxoaren 7a arte

dituzte, martxoaren 7a bitartean. Abadiñok bost partidu jokatu ditu etxean: Zarautzez gainera, Gros B, Egidazu, Urnieta eta Oberena jasoko dituzte.

Agenda


FUTBOLA OHOREZKO MAILA Berriz - Moraza Domekan, 11:30ean, Berrizburun LEHEN ERREGIONALA Zaldua - Etxebarri Zapatuan, 16:00etan, Solobarrian BIGARREN ERREGIONALA Ezkurdi - Elorrio Zapatuan, 17:30ean, Arripausuetan GAZTE MAILA - LEHEN ERREGIONALA Kulturala - Orduña Zapatuan, 12:00etan, Tabira futbol zelaian Abadiño - Lauro B Zapatuan, 10:30ean, Astolan Berriz - Gernika B Zapatuan, 11:30ean, Berrizburun	ERRUGBIA LEHEN MAILA Durango Ilarduya - Gernika Zapatuan, 16:00etan, Arripausuetan	ARETO-FUTBOLA LEHEN NAZIONAL B MAILA Elorrioko Buskantza - Jarrilleros Domekan, 12:00etan, Elorrioko kiroldegian EUSKAL LIGA Sasikoa - Kukulaga Etxebarri Zapatuan, 18:30ean, Landako kiroldegian PREFERENTE MAILA Elorrioko Buskantza B - Altamira Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian LEHEN ERREGIONALA Abadiñoako Gaztetxle - Bikaina Zapatuan, 15:10ean, Elorrioko kiroldegian Abadiñoako Lagun - Mallabia Bastida Zapatuan, 17:00etan, Berrizko kiroldegian BIGARREN ERREGIONALA Gu Lagunak - Mendibeltz Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian
SASKIBALOA LEHEN MAILA (emakumeak) Tabirako Baqué - Las Gaunas Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian LEHEN ERREGIONALA Anbotopeko - Centro Salmantino Zapatuan, 18:00etan, Tabira kiroldegian		



Hirumet taldearekin ariko da Murgotio. Iban Gorriti

SAILKAPENAK >

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak		Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / gizonak	Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak
1- Lagun Onak31	15- Amorebieta.....15	1- Vitoria9 (+187)	1- Bera Bera12 (+270)
2- Amurrio30	16- Eibar B.....15	2- Ardoi8 (+84)	2- Abaroa11 (+167)
3- Portugalete29	17- Santurtzi.....13	3- Baskonia Fund8 (+103)	3- Gernika10 (+181)
4- Elgoibar27	18- Zarautz11	4- Logroño8 (+141)	4- Ardoi10 (+89)
5- Gernika27	19- San Ignacio9	5- Bide Bide7 (+15)	5- Getxo9 (+74)
6- Zalla24	20- Ordizia4	6- Arabako EHU5 (-32)	6- Oberasa9 (+55)
7- Zamudio23		7- Tabirako4 (-30)	7- Tabirako7 (+54)
8- Beasain22		8- Pamplona UPNA2 (-112)	8- Atletico SN7 (-9)
9- Kulturala22		9- Goierni2 (-241)	9- Arabako EHU5 (-16)
10- Leioa21		10- Getxo2 (-115)	10- Las Gaunas5 (-108)
11- Baskonia19			11- Uni. Navarra4 (-22)
12- Laudio19			12- Artieda4 (-79)
13- Alaves B17			13- Irlandesas4 (-134)
14- Arenas Getxo17			14- Loiola3 (-123)
			15- Easo2 (-188)
			16- Astigarra2 (-211)




Durangoko Kulturalak 28 gol sartu eta 26 jaso ditu orain arte



Durangaldeko EGUTEGIA 09

ohiko
lekuetan
salgai

3€



HONAKO LEKUETAN AURKITUKO DUZU

Iurretan: •Mila janari-denda •Urien liburu-denda; **Garai:** •Herriko taberna; **Durango:** •Alpino taberna •Hitz liburu denda •Urrike liburu denda •Arkarazo •Pol-Pol •Ibaizabal ikastola •Kurutziaga ikastola •Gozo-txori •Plateruena •Herriko taberna; **Atxondo:** •Mari okindegia •Erosle •Itziar taberna; **Elorrio:** •Tximeleta •Parra •Txintxirri ikastola •Ilargi; **Otxandio:** •Prentsa-denda •Danoena taberna; **Mañaria:** •Herriko taberna; **Izurtza:** •Azkonizaga •Herriko taberna; **Mallabia:** •Okindegia; **Zaldibar:** •Imendia •Baratza •Herrikoa; **Abadiño:** •Estankoa •Zure denda •Petite •Nagusien egoitza •Txirri txirri •Larrano; **Berriz:** •Estankoa •Amalur liburu-denda •Fonda .



LAUHANKA[>]

Zaldien elikadura ohiturak edadearen, osasunaren eta esfortzu fisikoa lako hainbat faktoreren araberrakoak dira

Bazkaren ezaugarriak jakitea beharrezkoa da, elikagai osagarriak zein neurritan emon jakiteko



Zaldia, elikadura bereziko animalia

Badagoz hainbat jaki animaliaaren digestinoan laguntzen dabenak

Zaldia itxura galanteko animalia handia da eta bere gorputzak mantenu egokia behar dau bere bolumena jasateko. Tamaina dela-eta, elikaduran zaintza berezia behar dauen animalia da, batez be, lehiaketetan parte hartzen dauen zaldia bada gure kargu daukaguna.

Halan be, zaldien elikadura ohiturak edadearen, osasunaren eta esfortzu fisikoa lako faktoreen araberrakoak dira. Esaterako, ez doguz berdin elikatuko hazten dagoen zaldi gaztea edo animalia heldu bat. Edo, adibidez, erabile- ra orokorreko zaldi batek lehiaketetan diharduen zaldiak baino mantenu gitxiago beharko dau.

Gainera, zaldiak barneratzen dituen elikagaien ordena be garrantzitsua da bere ohiturak osasuntsuak izan daitezen. Garrantzi handikoa da animaliak

elikadura orekatua izatea, gehiegizko lodierak osasunean eragin kaltegarriak sortu eta zaldiaren bizitasuna erasotu leike-eta.

Aske dagoen zaldiak eguneko 12 ordu igarotzen ditu elikatzen; 60 eta 80 kilogramo belar artean jan leike. Zalditegietan dagoen zaldiei, barriz, hiru janaldi emon behar jakez, arratsaldekoa izanik janaldirik gogorrena, eta eguerdi aldekoa leunena.

Zaldiaren izaerak be aldaketak eragin leikez elikaduran. Hainbat zaldi arraza sutu egiten da jan orduan euren ugazabak aurrez aurre izaten dauenean. Kasu horretan, ez dago pazientziaz jokatzeari beste aukerarik, gure animalia ohitu artean.

Oinarritzko elikadura

Belarra eta galtzua dira zaldiaren elikaduraren oinarri, baina beti be belar motaren, ongarri kantitate-

aren eta uza denporaren araberrakoa izango da osaketa. Berandu batu den bazkak mineral eta proteina gitxiago dauka; bere ezaugarriak zeintzuk diren jakitea behar-beharrezkoa da, elikagai osagarriak zaldiari zein neurritan emon jakiteko.

Belarrik sikuak: elikagai asko daroa. Normalean, belarraren artean zaldiak bereiztu ezin leikezen landare pozointsuak badagoz be, ez dira arriskuak, sustantzia horreek desagertu egiten dira-eta animalia kaltetu barik. Gura beste belar jan leike, eta belarra heze badago hobeto, errazago digerituko dau-eta.

Belarra: mineral asko emoten deutso animaliarri; are gehiago, denpora luzez biziraun leike belarra bakarrik janean. Halan be, fisikoki sabela loditzen dau, beraz, lehiaketetan dabilzen zaldientzat ez da gomendagarria.

Bazka-erremolatxa: ez da elikagai askoko jakia, baina, lagungarria da zaldirik argalenez pisua hartu daien.

Oloek eta pentsuek, barriz, animaliak behar daben energia kopurua emoten deutse, eta batez be, garagarra eta artoa dira aholkagarrienak, digestio ona ahalbidetzen dabe-eta hestemeharrean.

Osagarri modura

Aipatutako jaki guztien osagarri modura, badagoz beste zenbait, besteak beste, animaliaaren ilaje eta larruari mesede egingo deutesenak. Lehenik eta behin, azenarioak erabili geinkez zaldiaren eguneroko dieta osatzeko, animaliarri betakarotenoak emoten deutzazelako. Dena dela, azenarioak garbitu egin behar dira euren gaineko harea dena kentzeko.

Bigarrenik, bakailaoaren gibelatik eratorritako olioak be oso gomendagarria da; batez be, zaldiak estalperik bako landaretzarik gertu eduki ezear. Linazi-olioak be on egingo deutso digestioan eta ulearen distiran.

Eta azkenik, linazi egosiak, beste elikagai batzuekin tartekatuz, proteina ekarpena egingo deutso gure zaldiari.

Baina, bestelakorik be jan leike zaldiak; gozokiak, esaterako. Badagoz zaldiarentzat bereziak eta beharrezko elikagaiak ditueen azenariozko galletak; batez be, lasterketarako zaldientzat. Azukre koskorrek, barriz, berekiko, besteenganako eta, bereziki, jabearenganako hartumona hobetzen laguntzen dabe.

Ura be oso beharrezkoa da zaldien elikaduran, gizakioi gertatzen jakun antzera egarria baino hobeto jasaten dabelako gosea. Hori dela-eta, ura kalitate onekoa, freskoa eta zapore aldaketa handirik bakoa izan behar da; bestela, zaldiak ez dau-eta urik edango. 10 gradu ingurukoa da urarentzako tenperaturarik egokiena. Izan be, ur hotzegiak kolikoak sortu leikioz zaldiari. Urtenbide moduan, aska automatikoa erosi leiteke; holan, ura fresko eta garbi mantenduko da beti.

IRAGARKIAK

OHARRA

Eroski Movilek ez du zenbaki laburretara mezuak bidaltzeko zerbitzua eskaintzen. ANBOTOK, kasu horretan, ez dauka inongo erantzukizunik.

IBAIZABAL IKASTOLA KOOP. ELKARTEAK batzar nagusirako deia egiten du. Abenduaren 17an arratsaldeko 18:30ean kooperatibaren egoitzan

LANA

ESKAERAK

Denda eta enpresen kontabilitate eta fiskalitatea eramateko prest nago. Ekonomikoa. Tel.: 635 715 928

Neska gaztea portala garbitzeko prest dago. Tel.: 666 691 003

Pertsona bat behar da goizetan etxeko lanak egiteko eta umeak eskolara eramateko. Tel.: 618 896 591

Iurreta. Jatetxe batean asteburuetan lan egiteko lagun bat behar da. Tel.: 94 681 78 47

Durango. Ibaizabal ikastolako kafetegirako tabernaria behar da, asteburuetan lan egiteko. Orduetgia: 9:00etatik 16:00etara edota 16:00etatik 24:00etara. Tel.: 94 621 60 21 errota@ikasibai.com (erref. Tabernaria)

Elorrio. Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko: garbiketak eta plantxa. Tel.: 665 701 825 (Patxi)

Durangaldea. Durangaldeko Geu Be elkarteak gizonezko begiraleak behar ditu arratsaldez lan egiteko. Interesatuak bidali curriculum: afngeube@yahoo.es. Tel.: 94 621 72 68

45 urtetik gorako emakumea behar da etxeko lanak egiteko. Goizez, 08:00etatik 11:45era. Tel.: 617 882 884 (Nekane). 14:00etatik 15:00etara deitu.

Pertsona bat behar du etxeko lanak egiteko eta bi ume ikastolara eroateko. Tel.: 651 700 695

Pertsona bat behar da 08:00etatik 11:00etara etxeko lanak egin eta umeak eskolara eroateko. Tel.: 645 727 616 (arratsaldez)

Durango. Emakume euskalduna behar dugu haur bat zaintzeko, 12:30etik 16:00etara. Urrian hasteko. Tel: 600 060 901

LANA

-Eskaerak
-Eskaintzak
ETXEBIZITZAK
-Salgai
-Errentan eman
-Errentan hartu
-Pisua konpartitu
IRAKASKUNTZA
-Klaseak hartu
-Klaseak eman
MOTORRA
-Salgai
-Erosi
LOKALAK
-Errentan eman
-Errentan hartu
ANIMALIAK
-Salgai
-Erosi
BESTEAK
-Berba egin
-Salgai

Eguazten arratsaldeko 18:00ak arte jasotako iragarkiak soilik argitaratuko ditugu. Mezuak jaso eta hurrengo alean publikatuko dira, astebetez.

Zure iragarkia argiratzeko: Bidali ANB (tarte) eta zure iragarkia 7789 zenbakira. Mezu bakoitza: 1,2 euro + BEZ

IRAGARKI PARTIKULARRAK Ordaindutako moduloak fondo beltzagaz eta letra zuriz argitaratuko dira.

IRAGARKI PROFESIONALAK Modulo bat, astero: 7 euro (BEZ barne)

Edozein motako iragarkiak kontratatzeke honako telefonora deitu: 94 621 79 02

Durango Plateruena Kafe Antzokiak jatetxean lan egiteko zerbitzariak behar ditu. Giro euskaldunean lan egin gura baduzu, jarri gurekin harremanetan. Harremanetan jartzeko (Maria):
Tel.: 94 603 03 00
94 681 42 78
antolaketa@plateruena.org

Durango. Enpresetan hainbat helburutako aleman eta ingeles klaseak emateko irakaslea behar da. Derrigorra da ingeles eta alemaniera menperatzea, hezkuntza ezagutzak izatea, informatika eta interneta menperatzea, gida-baimena izatea eta esperientzia. Erreferentzia: 14.788. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Berriz. Jatetxe bateko jantokian lan egiteko pertsona bat behar da. Astearteak jai. Derrigorra da Durangaldean bizitzea, kotxea eta karneta izatea, eta esperientzia izatea. Erreferentzia: 14.786. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Zornotza. Aseguru teknikaria behar da. 25 eta 45 urte bitarteko pertsona bilatzen da. Esperientzia baloratuko da. Erreferentzia: 11.707. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Iurreta. elektrikaria behar da tentsio baxuko instalazio elektrikoetarako. Egun osoko lan-aldi zatitua. Derrigorra da gutxienez 36 hilabeteko esperientzia izatea, gida-baimena izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 13.842. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Zuzendaritzako idazkaria behar da. Derrigorra da ingelesa menperatzea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 13.935. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

ANTZERKIA gustoko baduzu anima zaitez Elorrioko 'Arrapaladan' taldean parte hartzera arrapaladan@hotmail.com
635 74 49 71

Durango. Aseguru-merkataria behar da. Derrigorra da ordutegi malgua izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 14.113. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Aseguru merkataria behar da bezeroak lortu eta mantentzeko. Derrigorra da Durangaldean bizitzea. Esperientzia izatea kontuan hartuko da. Erreferentzia: 14.343. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Berriz. Jatetxe batean mahaiak zerbitzatzeko pertsona behar da. Derrigorra da Durangaldean bizitzea, kotxea eta karneta izatea, eta esperientzia izatea. Erreferentzia: 14.427. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Zerbitzaria behar da barran eta mahaiak zerbitzatzeko. Derrigorra da Durangaldean bizitzea eta esperientzia izatea. Lan-egun osoa, astean bi egun libratuz. Erreferentzia: 14.461 SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

ESKAITZAK

Neska euskalduna edozein lan mota egiteko prest, edozein ordutegitan. Esperientzia lantegietan, zerbitzari bezala, umeekin... Tel.: 647 008 625

Teknikari laguntzaile klinikoa adineko pertsonak zaintzeko edo lagun egiteko prest dago. Tel.: 636 025 493

Durango bat dendari moduan lan egiteko edo pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Tel.: 637 513 429

Pertsona nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Tel.: 650 102 636

Neska euskalduna dendetan garbiketant edo jatetxeetan (zerbitzari moduan) lan egiteko. Edozein ordutegitan eta berehala lanean hasteko prest. Tel.: 663 657 288. Izaskun.

Enpresa Zientzietan diplomatur dagoen neska umeak zaindu eta klase partikularrak emateko prest. Pertsona nagusien laguntzaile izateko be gertu. Tel.: 666 691 003

Teknikari laguntzaile klinikoa adineko pertsonak zaintzeko edo lagun egiteko prest dago. Tel.: 690 286 071

21 urteko neska euskalduna arratsaldetan umeak zaindu edo partikularrak emateko prest. Tel.: 630 233 988

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Otxandio. Etxebizitzak salgai. Salmenta zuzena, konstruktorearekin. Prezio eta etxe interesgarriak. Tel.: 676 018 586

Elorrio. Etxebizitza salgai. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta trastelekua. Guztiz berrituta, oso eguzkitsua eta polita. Tel.: 617 787 165

AUKERA

Durango bideokluba traspasatzen dut. Gozokiak saltzeko gunea dauka eta vendingeko makina bat kanpoan. **27.000 euro** (lehen 42.000). Zonalde interesgarria.

Tel.: 658 724 574

Berriz. Etxea salgai. egongela, bi logela, sukaldea eta komuna. Berrituta, berogailuz eta altzariz hornitua. Tel.: 667 064 942. Olatz.

Durango. Pisua salgai Artekalean. 6 logela, komun 2, sukaldea, despentsa eta egongela. Etxebizitza 2 egiteko aukera. Tel.: 657 791 028

Abadiño. Pisua salgai. 4 logela, sukaldea, bainugela eta egongela; garaje itxia, txokoa eta terrazarekin. Tel.: 94 681 70 67

INMOBILIARIAS

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamentu berriak eraikitzen.
- Zaldibar: Etxebizitzak eraikitzen.
- Abadiño: Txalel bifamiliarra lur eremuarekin.
- Abxondo: Adosatua lursailarekin.
- Abxondo: Baserrira salgai.
- Erretentxu: Adosatua eraikitzen.
- Erretentxu: Txalel bifamiliarra eraikitzen.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.
- Otxandion: Familia bakarreko etxea lursailarekin.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Muntzaratz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun, balkoia eta ganbara. Egoera oso onean. Igogailua. Eguzkitsua.
- Muntzaratz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea eta ganbara (berria) eta egoera oso onean)
- Murueta Torren: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea eta ganbara. (berria hobekuntzekin).
- Murueta Torren: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea trastelekuarekin eta ganbara. (eguzkitsua eta ikuspegiarekin).
- Murueta Torren: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea eta ganbara. (berria, erdi jantzia).
- Murueta Torren: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 4 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea trastelekuarekin eta 2 ganbara. (hobekuntzekin).
- Murueta Torren: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea eta ganbara.
- Plateruen Plazan: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela, 3 komun, garajea eta trastelekua.
- Plateruen Plaza(ERMODORANTZ): Halla, egongela-jangela, sukalde-jantokia, 2 logela eta 2 komun.
- San Agustinalden: Apartamentu berriak salmentan.
- San Fauston: Halla, sukalde-jantokia, 2 logela eta komuna. Etxe jantzia.
- San Fauston: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.

ERRENTAN EMAN

Durango. Pisu bat alokagai. 2 logela, saloia eta sukalde hornitua. Tel.: 620 773 947

Zaldibar. Apartamentua alokagai; bikote batentzako modukoa. Leku onean. Tel.: 665 707 664

Durango. Lau logelako pisu bat alokagai. 750 euro hilean. Konpartitu daiteke. Tel.: 666 691 003

Durango. Hiru logelako pisua alokagai. 750 euro hilean. Tel.: 666 691 003

Apartementua alokagai Llanesen. Tel.: 637 916 892. Deitu 14:00etatik aurrera.

Durango. Alde zaharreko etxe bat alokagai. Guztiz barriztuta dago eta hiru gela ditu. 750 euro. Tel.: 655 717 527

ERRENTAN HARTU

Durango. Konpartitzeko pisu edo etxe bila nabil.Tel.: 666 202 273

Durango. Alokatzeko pisu bila gabiltza.Tel.: 659 088 185

Elorrio. Bikote gaztea gara, eta alokatzeko etxe bila gabiltza. Tel.: 677 483 917

Durungaldea. Alokatzeko pisu bila gabiltza; ama eta alaba gara. Tel.: 617 649 830

Elorrio. Alokatzeko pisu bila nabil. Altzariekin. Tel.: 94 658 21 91 (Bego)

IRAKASKUNTZA

HARTU

Neska euskalduna behar dogu 10 urteko neska bati klase partikularrak emateko (ingelesa eta beste irakasgai batzuk). Tel.: 94 621 82 57 (Mari Karmen)

Hizkuntza akademia batek ingeles maisua behar du. Hasiberritik aurrerratura. Tel.: 606 878 521

EMAN

Klase partikularrak ematen dira, euskeraz eta gaztelerez. Talde murriztuak. Esperientzia handia. Tel.: 666 691 003

Elorriori eta Durangon Matematika klase partikularrak ematen ditut. Tel.: 636 025 493

Berezitasunak dituzten haurrekin lan egindako neska euskalduna eskola partikularrak emateko prest dago. Tel.: 650 874 594

Ingenieritza ezagutzak dituen eta Enpresa Zientzietan diharduen 3. mailako ikaslea, LH eta DBHko klase partikularrak emateko prest, Durangon eta Berrizen. Tel.: 605 763 942

MOTORRA

SALGAI

Maxiscooter Yamaha Tmax 500 ABS salgai. 2006 urtekoa. Extra guztiekin. 5.600E. Tel.: 628 413 848

Fiat Grande Punto 1.4 salgai. 75 zaldi Gasolina. 2006 urtekoa. Egoera onean. 5.000E. Tel.: 695 594 105

Renault Megane 1.9 Tda salgai. 1996 urtekoa. Oso ondo dabil. 1.400E. Tel.: 600 611 601

Fun roller autokarabana salgai. 2003 urtekoa. 54 km. Motorra Fiat 2.8 JTD. 127 zaldi. 24.000E. Tel.: 690 827 252 / 94 622 50 78

Lancia Libra SW (familiarra) salgai. Egoera onean. 8 urte. 4.500E. Tel.: 94 622 56 73

GOLF GTia salgai 140CV 80000Km 7000E. Tel.: 687 539 898

Audi 100 2.3. salgai. 135 CV. Kotxe segurua eta ondo zaindua. 1.100 euro. Tel.: 685 702 177

Yamaha Raptor yfm 350r quad-a salgai. 2004. urtekoa.Extra ugari dauzka.Oso egoera onean. 3.500 euro. Tel.: 685 798 057.

Audi A3 salgai. 1900 TDI. 130 CV. Tel.: 659 842 171

ANIMALIAK

SALGAI

Alemaniar artzai-txakurrak. Kumak salgai ditut, pedigreearekin. Tel.: 655 749 239

Arratoi-txakur arrazako bost txakurkume ditut salgai. Tel.: 94 682 74 41

Euskal artzai-txakurrak. Kumak salgai ditut. Tel.: 619 887 513

Bulldog Ingeles kumea salgai. Tel.: 615 717 926 (Zuriñe).

Braco Alemaniar txakurkumea salgai. 3 hilabetekoa.Txertoak jarrita eta parasitoak kenduta. Tel.: 94 682 79 38. Deitu 21:00etatik aurrera.

Border Collie txakurkumeak salgai. Zuri-beltzak, urriaren 25ean jaioak. Tel.: 699 891 096

OPARI

Artzai-txakurrak. Hilabete bateko kuma bat oparitzen dut. Arra da. Oso polita. Tel.: 626 113 869

LOKALAK

ERRENTAN HARTU

Durango. Garaje itxia alokatuko nuke lurretan edo Alluitz kale inguruan. Tel.: 615 392 681

ERRENTAN EMAN

Elorrio. Garaje itxia alokagai, plazatik gertu. 60 euro hilean. Tel.: 660 458 756

Elorrio. Garaje itxia alokagai, Ferialean. 60 eurotan. Tel.: 675 700 321

lurreta. Ofizinarako lonja bat alokagai. Tel.: 94 681 66 73

BESTEAK

EROSI

Basoa. Lur zati bat erosiko nuke Durangon edota Durango aldean. Ez

zait axola txikia izatea edota leku ez oso erosoan egotea. Tel.: 676 685 052 eta 660 369 973

SALGAI

Sutarako pago eta haritz egurra. Edozein neurritan salgai. Etxerako bidalketa. Tel.: 644 194 722

Trikitixak. Berriak eta erabilitakoak salgai. Tel.: 687 281 981

Basoa. 42.000 m-ko basoa salgai. Orixol mendiaren azpian. Tel.: 600 313 200

Garbigailu eta hozkailua salgai. Oso egoera onean. Tel.:639 740 049

Zaldibar. 13.500 m-ko lusaila salgai. Eguzkitsua eta oso ondo komunika-tua. Lursailaren ondoan ura eta argia. Tel.: 675 717 281

Garbigailua saltzen dot. Tel.: 605 724 244

Sukaldeko txapa. Lakunza Lis 7 modelokoa salgai. Tel.: 649 004 587

BEREZIAK

Garraioa konpartitzen dut Gasteiztik Otxandiora joateko, astelehenetik ostegunera. 09:30etik aurrera. Tel.: 945 46 14 67 edo 615 723 077

Karabana eta autokarabanak godetzeko zerbitzua eskaintzen dugu. Garbitokia, gurpil eta balazten ikuskapena, uraren karga eta lanzaren olioztatzea. Tel.: 685 752 339



Urarka 1 behekoa • 48230 Elorrio Tel.: 94 682 00 41
Faxa: 94 623 16 30 • argiñeta@euskalnet.net • www.argiñeta.net

ETXEBIZITZA SALGAI

ELORRIO

18 TXALET ADOSATUEN PROMOZIO BERRIA NIZETO URKIZUN. ERAIKITZEN HASITA. PLAZATIK 200 METROTARA.

BERRIZ

PROMOZIO BERRIA. 2 eta 3 logelako 20 etxebizitza. Eraikitzen hasteko.

P89: 90 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Trastelekua eta garajea. Eguzkitsua.

ATXONDO

PROMOZIO BERRIA.1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. Leku onean. 44 etxebizitza.

ABADIÑO

C20: Txaleta. 193 m2 lau solairutan. 3 logela, egongela, sukaldea eta 4 bainugela. Garajea, txokoa eta atikoa. Berria.

P79: 85 m2. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Atikoa. Garajea eta trastelekua. la berria.

DURANGO

P81: 90 m2. 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua.

ELORRIO

P80: 72 m2. la berria. 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Trastelekua eta garajea.


P83: 92m2. Dena barriztuta. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Guztiz jantzia. Zentrikoa.

P84:85m2. la berria. 3 logela (1 bañoelarekin), egon-gela, sukaldea, beko sua. Guztiz jantzia. Garaje itxia.

P77: 68 m2. Guztiz barriztatuta. 2 logela, saloia-sukaldea eta bainugela. Jantzia. Oso polita. Berogailu radiantea. 90m2-ko lorategia.

P76: 44 m2. Berria. Atikoa igogailuarekin. Logela bakarra, saloia, sukaldea eta bainugela. Gas naturaleko berogailua.

P65: 30 m2. la berria. Atikoa: logela 1, sukalde-saloia eta komuna. Igogailua. Precio ona. Gas naturaleko kalefakzioa.



Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa:94 681 66 66 inmobisd@euskalnet.net
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Tabiran: Luxuxko etxebizitza berrien promozioa.
- Mañarian: Etxebizitza berriak estreinatzeko, erosi ia alokairu gisa.
- Durangaldea: Baserriak eta txaletak aukeran.
- Zaldibarren: Lur saila salgai. Eraikitzeko aukera.
- Aramotzen: 2 logela, egongela eta komuna. Bizitzen sartzeko prest.
- Aramotzen: 3 logela, egongela eta 2 komun. Garaje bikoitza 28 m2 kanpoaldera ematen duena.
- Frantzisko Ibarren: 4 logela, egongela, komuna eta balkoia. Handia eta eguzkitsua.
- Ezkurdin: 3 logela, egongela, sukaldea eta barriztatu beharreko 2 komun.
- Askatasun Etorbidean: 3 logelako etxebizitza dotorea, egongela-sukaldea eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.

- Askatasun Etorbidean: Duplexa. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Eguzkitsua.
- Landakon: 3 logelatako etxebizitza dotorea.2 komun, egongela, sukalde jantzia eta 2 terraza.Garaje eta trastelekua.Bizitzen sartzeko prest.
- Fray Juan de Zumarragan: Duplexa.Ezin-hobea.
- Zabale kalean; 90 m2-ko etxebizitza polita. Garajea eta ganbara. Eguzkitsua.
- San Inazion: 2 logela. Azkeneko solairua. 80 m2-ko TERRAZA. Eguzkitsua. Precio interesgarria.
- San Inazion: Beheko solairua. Pertsona nagusien-tzako egokia. Gurpil-aulkiei egokitutako atea dituen etxebizitza.Hego-Mendebalderuntz orientatua.
- Herriko Gudarien kalean: 100 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Oso eguzkitsua. TERRAZA handia.
- Tronperrin:Ezin-hobea. 3 logela, egongela, sukalde berria jantzia eta 2 komun. Garaje itxia eta ganbara. Precio onean.Bizitzen sartzeko prest.
- Murueta Torren:Leku-aldatzea dela eta etxebizitza ezin-hobea saltzeko premia. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trastele-kua.
- Landako Txibitenan: 2 eta 3 logela. Ezin hobeak.
- Tabiran: Beheko solairua. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. 70 m2-ko lorategia. Garaje itxia.



ETXEBIZITZA SALGAI

- Goienkalen: 3 logela. Bizitzen sartzeko prest. 186.300 €.
- Durangon: Bizitzen sartzeko prest.180.000 €(30 mill.)
- San Ignazion: 3 logela eta 2 komun. Kanpora ematen du. Eguzkitsua. Terraza. Garajea aukeran.
- Frantzisko Ibarren: 100 m2. Eraikuntza berria. Pisu altua. Terraza. Garaje itxia.
- Murueta Torren: Azkeneko solairua terrazarekin. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
- Mendizabalén: 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
- Antso Eztegizen: 3 logela, komuna eta egongela. Terraza. Eguzkitsua.
- Zeharkalean: 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Komuna eta egongela. Ganbara. 210.350 €.
- Ezkurdin: 150 m2. 4 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Aire girotua. Garajea.
- Tabiran: 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Berriak.
- Ezkurdin: 70 m2. 1.go solairua.

- IURRETA
- Maspe kalean: 90 m2. 2 komun.Garaje itxia. 43 mill.
- Bidebarrietan: 75 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Despentsa. Igogailua.234.400 €.
- Maspe kalean: 70 m2.3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.Igogailua.235.000 € (39 mill).
- MATIENA
- 3 logela. 210.000 €
- MAÑARIA
- 2 solairuko etxea 1.400 m2-ko lur-sailarekin.
- BERRIZ
- Learreta-Markinan: Duplexa. 140 m2.
- San Antonion: Berriztatuta. 210.400 €.
- ZALDIBAR
- Eraikuntza berria: 2 eta 3 logelakoak. 2 komun. Trastelekua eta garajea. 228.400 €-tik hasita.
- ATXONDO
- Duplexa: 120 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela.
- GARAI
- Alokairuan. Errustikoa.
- ABADIÑO
- Alokairuan. Baserria baratzarekin. 4 logela.



NEGOZIOAK SALGAI

• Matiena–Abadiño: Taberna-jatetxe berria estreinatze-ko. UGB BUILDING eraikuntzan. Informazio pertsonali-zatua.

ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO

- Apartamento berriak eraikitzen.700 € hilero.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Erdialdean: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak. 172.000 €-tik hasita.
- Bolivar: 2 eta 3 logelako etxebizitza berrien eraikuntza. Garaje itxiak.Durangotik 15 minutura. 174.000 €-tik hasita. ORDAINKETA MODUAK
- NEGOZIATZEN DIRA.
- Barrenkalen: Azkeneko apartamentuak.
- Askatasun Etorbidean: 125 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara, garajea eta trastele-kua. Guztiz kanpora ematen du.
- San Inazio auzunean: 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela. Eraiki berria. Guztiz berria, estreinatzeko.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.
- Tabiran: Estreinatzeko. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Garaje itxia eta trastelekua.
- Fray Juan de Zumarraga: 2 logela, sukalde-jantokia, egongela txikia eta komuna. Despentsa.
- Juan Antonio Abasolon: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Precio interesgarria.
- Zubiaurre: 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta garaje itxia.Guztiz berria.Estreinatzeko.

MATIENA-ABADIÑO

• Txinurrisolon: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara, garajea eta trastelekua. Guztiz kanpora ematen du.

DENPORAPASAK>

HITZ GEZIDUNAK >

	Aiako		▼		Jeinu greziarra	▼		Irudi geometriko	
	Jostailu birakariak				Amueko herrixka				
	▶				▼			▼	
	Automobil		▶						
	Aralarko zelaia								
Dhakakoa	▼	Perfume	▶	▼					
Alemaniaiko ibaia		Unean ... mementuko							
▶		▼			Behiaren arbaso	▶			
					Saski handia				
*Bizkaiko mendia	▶				▼			Emankor	
Kafea									
▶							Bokala	▶	▼
							Uluka		
Pl., zuhaitz mota	▶						▼		
Guztiz larritu									
▶			Zaurituak garraiatzeko	▶					
			Zaintza						
Bokala	▶	Zero, bokalik gabe	▶	▼		Iridioa	▶		
Benetakoak		Edari al-koholdun				Bibliako pertsonaia			
▶		▼				▼			
Marinelen zerrenda	▶				Nafarroako herria	▶			
Hanoiko					1				
▶					▼				

SUDOKU >

Zelan jokatu: Osatu taula (bederatzi koadrotan banatua), 81 lauki dituen (bederatzi lerro eta zutabetan jarriak), gela hutsak 1-9 arteko zenbakekin betez, lerro, zutabe edo koadro bakotxean zenbakirik ez errepikatzeko moduan.

1

9		5						6
8			2		4			
			9			2	7	8
						6	5	
			5		7			
	1	2						
7	8	9			1			
			8		9			4
6						8		3

2

6	2	3	1			7		
				2				4
			3	7	5			6
	1	4	3		6			
					6	8	5	
				1	3			
2				7			5	
3	7	5					4	

ERANTZUNAK >

R	V	L	I	O	N	V	H
O	K	O	.	L	O	R	.
K	V	L	V	E	R	R	E
R	I	.	R	Z	.	V	.
V	D	N	V	.	O	L	I
K	V	I	Z	V	K	V	.
E	.	V	L	I	E	K	V
.	O	L	O	B	N	V	.
O	R	U	.	R	U	H	R
N	I	R	U	.	D	.	.
O	L	U	V	.	.	.	.
K	I	B	A	Z	.	.	.
.	S	.	V	.	.	.	.

3

1	4	2	8	9	6	5	7	3
6	5	8	3	7	4	1	9	2
7	9	3	1	5	2	8	6	4
3	1	4	2	6	5	9	8	7
5	8	9	4	1	7	2	3	6
2	7	6	9	8	3	4	1	5
9	6	5	7	3	8	6	4	1
4	3	1	6	2	9	7	5	8
8	7	9	5	1	4	3	2	6

7

3	6	8	5	2	7	1	4	9
4	1	7	6	9	8	3	5	2
2	9	5	1	3	4	6	8	7
7	8	4	3	6	9	2	1	5
1	2	7	8	5	9	6	4	3
6	5	9	2	4	1	8	7	3
8	7	2	9	5	6	4	3	1
5	3	6	4	1	2	7	9	8
9	4	8	7	3	5	2	6	1

1

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8

HOROSKOPOA >

Aries
martxoak 21 - apirilak 20

Negar egiteak lasaitu egingo zaitu beharbada, baina ez deustu ezer konponduko. Hartu indarrak eta begiratu etorkizunari.

Leo
uztailak 21 - abuztuak 23

Aprobetxatu egun honeek familia-gaz egoteko, baina lagunekin egoteko be bai. Euren babesaren garrantziak konturatu zara.

Sagittarius
azaroak 24 - abenduak 23

Askotan eskatu arren, Olentzerok ez deustu bikotekide barririk ekarri. Hoba izango dozu Urkiolara joan eta San Antonioren eskatzea.

ZORION AGURRAK >



Ane Etxeitar urteko azken egunean, abenduaren 31n, 20 urte egin zituen. Zorionik beroenak, koadrila osoaren partez.



Abenduaren 12an **Zigor Gerediagak** 24 urte egin zituen. Durangoko lagunaren partez, zorionak eta halako lagun ona izaten jarraitu!

Gemini
maiatzak 21 - ekainak 20

Aste honetan aldaketa usaina dakar zure lanak. Behintzat itxaron daigun onerako izatea, txarrerako baino. Baina batek daki...

Libra
irailak 24 - urriak 23

Lorez lore ibilita, azkenean alergia hartuko deustue ingurukoak. Zeuk be sustraiak lurrean botatzea ez legoke txarto.

Aquarius
urtarrilak 21 - otsailak 18

Gabonetan egunerokotasunetik irten eta lasaigo ibili zara. Durangaldean gertatu dena jakin gura badozu, irakurri egizu ANBOTO!



Jugatx Morenok abenduaren 22an hiru urte egin zituen. Zorionak, potxola, zure aitita-amamen, izeko eta osaben partez.



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dogu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia emotea.



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak. Eguneko menua.
Menu bereziak. Kartan, aukerako
okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu, 9 Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak
jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik
larunbatera. Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta
martitzen gauetan itxita.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe gida



Agarreko Jatetxea

Industrialdea Arriaundi, Iurreta
Tel.: 94 623 26 04

160 lagunentzako jantokia.
Ezkontzak, jaunartzeak, enpresa
bazkariak... Eguneko menua, karta,
menu bereziak.



Templete Jatetxea

Hotel Kurutziaga, Durango
Tel.: 94 620 08 64

Ospakizunak.
Karta.
Eguneko menua.
Menu berezia.



Ganeko Etxe

Elizondo, z/g Berriz
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe
gozoan, etxeko moduan sentitzeko.
Arrain errea kartan.
Eguneko menua: 8 euro.

Hemen agertu
gura
badozu,

DEITU

94 621 79 02

AKUILUAN

■ Markel Onaindia ■ Argazkia: Judit Fernandez

LAUHORTZA

"Garrantzi handiagoa emoten deutsagu besteen eritziari"

Estetikako ikasketak egin ondoren, makillaje ikastaroak emoten dihardu Markel Pastor durangarrak

Berak ikasitakoa erakusten dabil orain Markel Pastor gazte durangarra. Estetikagaz lotutako ikasketak egin ditu eta makillaje ikastaroak emoten dabil; Abadiñon izango da datorren astean. Moda edo estilismo munduan ikusten dau bere burua gerora. Makillajearen funtzinoa norbera ederrago ikustea dela dino.

Noiz hasizinen ikastengai horren inguruan?

Orain dela urte bi hasinintzen. Argi neukan edertasun edo moda munduetan murgildu gura nebala. Estetika pertsonala deitzen den alor hau topatu neban, eta asko erakarri ninduen, berau ikastea pentsatu neban, Erdi Mailako ziklo baten.

Zerk erakarri zintuen, honetan hasteko?

Batez be, makillajeak erakarri ninduen. Beti gustatu izan jat moda

mundua, eta makillajea horren barruan dago.

Orain, zeuzabilz ikastaroak emoten han eta hemen.

Bai, Durangon Berbaro elkarteak deituta emon neban bat, eskualde osoko jentea etorri zen etago handia erakutsi eben. Orain Abadiñoko Banarte antzerki taldeagaz emongo dot; urtebete daroat euren ikuskizunetan laguntzen.

Zer helburu daukazuz moda eta estetika munduan?

Hurrengo urtean Estetikako Goi Mailako Zikloa egin gura dot; kasu honetan, lotura handiagoa dauka modagaz. Moda edo estilismoan ari tzea interesatzen jat.

Ez da erraza izango, baina, bertan sartzea...

Euska Herrian ez dago

horregaz lotura daukan ikasketarik. Gero, oso gatxa da diseinatzailer edo makillatzaile batek lanean hastea. Dena dela, honen barruan hainbat arlo dagoz, murgiltzeko aukera emoten dabenak.

Zer faktore hartu behar da kontutan makillatzerako orduan?

Alde batetik adierazi gura dena izan behar da kontutan, eta, bestetik, pertsonaren aurpegia. Izan be, denok ez gara berdinak; begi edo ezpain txikiak daukazanari handitzen saiatu, aurpegiaren forma borobila edo luzanga bada zelan landu... Zeozer falta jakonari emoten jakitea da kontua.

Zuk, adibidez, ba al dozu estilo berezituren bat lan egiterako orduan?

Baleiteke. Bakotzak bere ikutu pertsonala emon leike, eta zeri garrantzia emon be bakotzak erabakitzen dau. Baina, bestela, makillatzaileok kon-

tuan hartzen doguzen faktoreak antzekoak izango direla uste dot.

Zer funtzino betetzen dau makillajeak aurpegian?

Printzipioz, daukaguzen akatsak estali eta azal polit bat ikusi ahal izateko erabiltzen da makillajea. Nire ustez, norbera ederrago ikusteko funtzinoa betetzen dau lehenik, eta gero, gainerakoek be gu ederrago ikusteko balio dau. Baina, gaur egun, garrantzi handiagoa emoten deutsagu besteen eritziari geureari baino.

Gero eta gizonezko gehiago arduratzen da bere itxuragaitik...

Gizonezkoen artean begeroago eta gehiago erabiltzen da makillajea, baina Euskal Herrian, ez dot uste hori gertatzen danik. Hirietan, aniztasunagaitik, gehiago ikusten da, baina Durangon eta inguruko herrietan ez.



Gotzone Barandika
Irakaslea

Homeopatia

Medikuntza alternatiboza-leak geroago eta gehiago dira gure gizartean. Medikuntza ofizialaren prozedura eta farmakoak ez dituzte gustuko, euren ustetan oso erasotzaileak direlako. Medikuntza alternatiboek naturalakizatearen meritua ematen zaie askotan, eta hori ez da beti egia. Gainera, alternatibotasun horretan elkarrekin zerikusi handirik ez duten gauza asko sartzen dira. Izan ere, akupuntura bezalako ekialdeko hainbat teknika eraginkorrak eta fidagarriak diren bitartean, homeopatia bezalako pseudomedikuntzek ez dute bate-re oinarri zientifikorik.

Homeopatiaren funtsezko ideiak ezaguera zientifikoz guztien kontra daude, eta azken hori gezurra dela aldarrikatzen duten guztiek milioi bat dolar dute irabazteko. James Randi mago ohiak eskainitako milioi bat dolar. Izan ere, dirutza hori lortu guran, BBC telebista britainiarak anbizio handiko esperimentu klinikoa diseinatu eta praktikan jarri zuen, zeinean homeopatiaren egiak eta gezurrak miatu nahi izan baitira. Hona hemen esperimentu horren eta beste askoren ondorioa: homeopatiaren eragin bakarra plazebo efektua da.

Plazebo efektuak sendatzeko daukagun federekin du zerikusi handia, eta nork bere estiloan gauzatzen du fede hori.

Beraz, bakoitzak egin dezala nahi duena bere gorputzarekin eta diruarekin, baina, mesedez, ez erratu kontzeptuak, ez jo homeopatia medikuntza zientifikotzat. Homeopatiak eta Lourdesko Ama Birjinak errespetu bera merezi dute, fede-kontuei ematen dieguna, hain zuzen ere.

Markel Pastor

Durangarra da.

Estetika pertsonala ikasi dau; makillatzailea da.



- KIROL MASAJEA
- OINETAKO ERREFLEXOTERAPIA
- MASAJE SAKONA



MINKENDU
AKUPUNTURA
ETA
MINAREN AURKAKO
TERAPIAK

Andra Mari 18,
48200 Durango

Alberto Murua
Tel. 662 270 770